Denunciaron, en este sentido, que no han tenido noticias de los responsables del Departamento de Industria, que se comprometieron a estudiar la situación de la empresa en una reunión anterior.

## Manifestaciones de los trabajadores de Cegasa

Los trabajadores y trabajadoras del Grupo Cegasa han llevado a cabo sendas manifestaciones en Gasteiz y Oñati en favor del mantenimeinto de los puestos de trabajo así como para exigir a los bancos que mantengan abiertas las vías de financiación.

Critican, por otra pare, que la presentación del concurso de acreedores ha generado una gran incertidumbre e inestabilidad en el Grupo.

## Acuerdo en las piscinas de Altsasua

ELA y la dirección de la sociedad pública Atabo Altsasu, que gestiona el servicio de piscinas de esta localidad, han suscrito un convenio que garantiza a sus 15 empleados/as incrementos salariales del IPC más 1% para el 2014 y 2015 y plus de vinculación de un 10% sobre el salario base.

## Cinco días de huelga en la limpieza de Gipuzkoa

Los sindicatos ELA y LAB (con una representación del 70% de sector) han convocado huelga para los días 12, 13 ,14 ,15 y 16 de mayo por un convenio digno que regule el sector de limpieza. El convenio de Limpieza de Gipuzkoa afecta a 3000 trabajadoras, la mitad del sector. La otra mitad se rige por convenios específicos de centro.

Las trabajadoras tienen el salario congelado desde el año 2009 y han visto reducida su jornada de trabajo. A través de este mecanismo hacen el mismo trabajo en menos tiempo y con menor salario. El ajuste salarial realizado a través de reducciones de jornada para hacer el mismo trabajo es de un 25%.



## EKOLOGIA
## MEDIO AMBIENTE

# Energiaren trantsizioa: egin beharrekoa

ENERGIA FOSILAK ETA SOLUZIO FALTSUAK ALDE BATERA UTZI ETA BERRIZTAGARRIEN ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU ELAN




› AINHARA PLAZAOLA

**Dugun energia eredua energia fosilean dago oinarrituta,** hau da, gehien kutsatzen duena, klima aldaketa eragiten duena eta mugatua dena. Batez ere petrolio eta gasa, eta hauengandik eratorriak diren beste iturri batzuk dira gehien erabiltzen ditugunak. Hauek bi arazo larri eragiten dituzte, batetik ingurumenean kutsadura izugarria eragiten dute bai naturatik ateratzen direnean bai erregai gisa erabiltzen direnean, baita material ezberdinak egiteko erabiltzen direnean ere, esaterako petrolioarekin plastikoa egiten denean. Eta etorkizunera begira, kutsadura areagotzeaz gain, energia fosil hauek uste duguna baino azkarrago bukatuko dira eta beste energia eredu bat beharrezkoa izango dugu. Hainbat zientzialariren ikerketen arabera petrolioari 30 urte inguru geratzen zaizkio. Eta gero zer?

**Nuklearrik? Ez, eskerrik asko.** Energi ereduaren aldaketa planteatzen denean badago energia nuklearraren alde egiteko joera bat. Baina energia mota honek ere kutsadura handia eragiten du, erabiltzen duen uranioa mugatua da, eta zer esanik ez, arrisku izugarri bat da. Zentral nuklearrak oso arriskutsuak dira, Txernobil eta Fukushimako adibideak aipatzea nahikoa da. Baina sarritan ahazten zaigu hondakin erradiaktiboak ez direla milaka urtetan ezabatzen, eta hauek ere ingurumenarentzat eta osasunarentzat arrisku bizia dira, inongo istripu edo hondamendirik gertatu gabe ere. Beraz, energia nuklearra ez da inongo alternatiba. Azken hilabeteetan nuklearren aurkako borrokak berriro indar handia hartu du Garoña berriro martxan jartzeko mehatxuarekin. Honen adibide garbia izan da martxoaren 15ean Garoña berriro irekitzearen aurka Gasteizen eginiko manifestazio jendetsua. Ez diegu utziko berriro martxan jartzen!

**Frackinga? Ez, eskerrik asko.** Baina ez da hau energia trantsizioak aurkezten duen soluzio faltsu bakarra. Azkenaldian frackinga ere indarra hartzen ari da munduko hainbat herrialdetan, baita hemen ere. Badirudi lur azpian dagoen gasa ateratzeko saiakera arriskutsuak batzuentzat etorkizuneko irtenbidea direla. Baina hau ere energia fosil bat da eta ez da bidezkoa. Lur azpiko gasa fracking deitzen den teknika kutsagarriarekin egiten da (lurra, akuiferoak eta airea kutsatzen ditu), eta ateratzen den gasa ikatza besteko kutsadura sortzen duen gas mota bat da.

Arrisku hauek nahikoak dira energia iturri baztertzeko, baina hainbat lekuetan honen aldeko apustuak egiten ari dira, ez herritarren mobilizaziorik gabe noski. Europa mailan, Frantzian eta Errumanian nekazarien borroka garrantzitsuenetako batean bihurtu da. Lurrak kendu nahi dizkiete ustiaketa mota hau zabaltzeko.

Kontrako egoerak ere badaude. Alemaniak adibidez teknika hau baztertu egin du. Kataluniak ere debekatu egin du frackinga bere lurraldean, baita Kantabriak ere, naiz eta Rajoyren gobernuak helegitea jarri dien. Euskal Herrian ere saiakerak egin dira, ezagunena Araban izan den arren gainontzeko lurraldeetan ere baimenak eskatuta daude metodo honen bidezko ustiaketak froga gisa egiteko. Baina, noski, hemen ere herritarron aurka egin beharko dute, dagoeneko asko dira frackingaren aurkako plataformak eta gero eta indar handiagoa lortzen ari dira.

ELAk ere hauetako batzuetan parte hartzen du. Azken ekimena plataforma hauek aurrera eraman dute. Frackinga EAEn debekatzeko Herri Ekimen Legegilea aurkeztu dute Gasteizko legebiltzarrean eta tramitera onartu da, iaz ez bezala orduan ere aurkeztu baitzuten eta ez zen tramitera onartu. Martxoaren 20tik hasita, lau hilabetetan zehar 30.000 sinadura jaso behar dira eta ziur gaude lortuko dugula; beraz, sinatu!

## La energía nuclear y la extracción de gas mediante fracking no son una solución sino que empeoran la situación

**Energia berriztagarriak.** Eta zer geratzen zaigu energia fosila eta nuklearrak alde batera utzita? Erantzuna jada ezaguna da: energia berriztagarriak. Eguzkia, ura, haizea edo biomasa erabilita energia sortzeko gai gara eta hau izan behar da gure oinarria. Baina ez bakarra. Energia iturri hauek garatzeaz gain ezinbestekoa izango da gure energia kontsumoa murriztea, bai pertsona bakoitzarena baita industriarena ere.

Bi elementu hauekin posible da energia eredu guztiz berriztagarri bat lortzea. ELAn honen aldeko apustu egiten dugu, eta gure borrokak bide honetan kokatzen dira. Ez da prozesu erraza izango, ez eta gaurtik biharrera egingo ere. Baina ezinbestekoa dugu oraintxe bertan hastea, beranduegi izan baino lehen.

LAN OSASUNA
SALUD LABORAL

# Lan Osasunaren babesa noizko? Administrazioak erantzule

ELA-K ADMINISTRAZIOEN ERANTZUKIZUNA SALATU NAHI DU LAN-OSASUN ETA SEGURTASUNAREN EGUNAREN BAITAN




› LEIRE HEREDIA

**Apirilak 28 berri bat dugu** esku artean, eta hau da aurten nabarmendu nahi dugun mezua: langile-klasearen osasuna mehatxu handi baten pean dago, eta enpresetako prebentzio zein babes maila gero eta txikiagoa da. Administrazio eta enpresak bizi dugun krisi egoeraren aitzakiaz baliatzen dira lan-segurtasun eta -osasuna bigarren planoan kokatzeko. Atzerantz goaz. Batetik, gobernu eta erakundeek inplikazio eskasa dutelako, babes egokirik bermatzen ez duten politikak erabakitzen baitituzte; bestetik, enpresetan bertan dagoen kultura prebentibo eta inbertsio gabezia handiaren ondorioz.

Azken aldian ikusten ari garen murrizpen eta doikuntza politikek ere kalte eragiten diote lan-osasunari, lantokietako prekarietatea areagotzen duten heinean. Lan-baldintzetan egonkortasuna gero eta txikiagoa izanik, eta enplegua gero eta okerragoa, lan-istripu eta -gaixotasunak etengabe ari dira gehitzen.

Halere, patronalak dena nahi du: malgutasun handiagoa, lanaldi luzeagoak, erritmo gero eta biziagoak, azpikontratazio gehiago, lanpostuetako arriskuak kentzeko inbertsio gutxiago, euren interesen aldeko legeak egitea... Ondorioz, prebentzio arloko estrategia eta inbertsioak bertan behera geratzen dira edo garrantzia kentzen zaie, horrek langileen segurtasun eta osasuna arriskuan jartzen badu ere.

Herri-administrazio eta -erakundeek eredu izan beharko lukete kultura prebentiboa sustatu eta ezartzerakoan, baita lan-arriskuen prebentzioari buruzko arauak betetzerakoan ere. Alabaina, administrazioaren jokabidea honekiko ez da inondik ere egokia.

**Kontzientzia eza.** EAEko eta Nafarroako gobernuek ez dituzte taxuzko politika publikoak bultzatzen lan-osasunaren babesari heltzeko. Europan eta espainiar estatuan hartutako erabakiei jarraitzen diete, inolako erresistentziarik gabe, eta bide batez adieraziaz ez daukatela egoera hau aldatzeko borondaterik. Lan-osasunera bideratzen den aurrekontuetako partida negargarria da (ez da BPGdren %0,020ra ere iristen); honek agerian uzten du gai honi ez zaiola lehentasunik ematen. Bestalde, osasun-sistema publikoa pribatizatzeko jardunbideak indartzen dituzte, lan-osasunean malgutasun eta desarautze gero eta handiagoa ezartzeko; horrela enpresek betebehar gutxiago eta erraztasun gehiago izango dute.

Administrazioek, bestalde, ez dute aintzat hartzen lan-arriskuen prebentzio araudia zaindu eta kontrolatzeko dagokien eginkizuna; utzikeriaz jokatzen dute patronalarekin ez dutelako gorabeherarik izan nahi. Esaterako, ez da behatzen Prebentzio Legea enpresetan zenbateraino betetzen ote den, eta arlo honetan ezartzen diren zigorrak hutsaren hurrengoak dira.

**Tenemos el reto de convertir la seguridad y la salud laboral en una prioridad en nuestro trabajo en las empresas**

Hego Euskal Herriko herrilanen sustatzaile diren aldetik, enpresei aukera uzten diete lan-baldintza txarretan egin daitezen; obra hauetan segurtasun arauak ez dira betetzen, azpikontratak bata bestearen gainean pilatzen dira, kontrolik gabe, kostuak aurrezteko beste xederik gabe.

Enplegatzaile gisa, berriz, Hego Euskal Herriko administrazioei dagokienez ELAk enpresa pribatuetan salatzen dituen arazo berdinak ikusten ditu. Indarrean dagoen lan-segurtasun eta -osasuneko araudia ez dute betetzen, eta beren esanetara lanean ari direnak babesik gabe uzten dituzte.

**ELAren proposamenak.** Agerikoa da, beraz, Hego Euskal Herriko administrazioak ez direla ezertarako eredu, kontrara baizik. Horregatik, ELAk galdegiten die lan-segurtasun eta -osasuneko ardura guztiak beren gain har ditzatela, honako irizpideekin:

- Gai honekiko politika publikoak errotik aldatzea, eta horretarako beharrezko diren baliabide publikoak erabiltzea.
- Langileen osasunaren onerako ekintzak erabakitzea, eta enpresak kontrolpean izanik, arauak betetzen ez dituztenak zigortzea.
- Lan-segurtasun eta -osasuneko araudia beteko dela bermatzea, administrazioarentzat lan egiten duten pertsonekiko, zein sustatzen dituzten herrilanetan dihardutenekiko.

Lan-osasuna babestea erabateko lehentasuna duen gai sindikala da, eta hura hobetzearren negoziazio kolektiboa eta ekintza sindikala indartzen jarraituko dugu. Apirilak 28a ospatzeko Bilboko Esperanza frontoian goizeko 10:00tan egingo den ekitaldira gonbidatzen zaituztegu. Gai honetan aurrera egiteko modu bakarra enpresetan antolatzea eta mobilizatzea delako.

DESDE IPARRALDE
IPARRALDETIK

# Zorionak, Enbata.info

## LEHEN URTEA BETE DUEN HONETAN EZINBESTEKO ERREFERENTZIA BIHURTU DA AGERKARI DIGITAL HAU

› XABIER HARLUXET

**Manu Robles Arangiz Institutua colabora estrechamente en el proyecto Enbata**

**Aktualitate abertzale eta progresista aipatzen duen Enbata.info web astekariak,** bere lehen urteurrena ospatu du. Tresna dinamikoa eta interaktiboa izaiteaz gain, Enbata.info Iparraldeko erronkei eta eragileei buruz milaka artikulu eskeintzen dituen datu base eraginkor bat da, Enbata paperezko aldizkari historikoaren ezinbesteko osagarria.

Bada orain urte bat Enbata.info-k sare ezberdinetan (Twitter eta Facebook barne) bere tokia indartzen duela. Web-astekariak astelehenero milaka hartzaileei Berri Papera hel arazten die, iruzkinen bidez eztabaida eta gogoetak aintzinarazteko eta partekatzeko parada eskainiz.

Bai, zinez tresna eraginkorra ari da bilakatzen Enbata.info. Bertan irakurlego zabal batek, Eneko Bidegain bezalako adituak lagun, euskarazko kronika berezituen bidez Iparraldeko aktualitate politikoaren berri, sintesia moduan, ukaiten ahal du. Gainera, azken herriko hauteskundeen kanpainaren karietarat, argi gelditu da erreferentzialitatea lortu duela web guneak. Alabainan, bertan iritzi artikuluak egiten dituzten kronikalariek sekulako jarraipena ukan dute, hainbat saretan erabiliak eta goraipatuak izan direlarik Enbata.info-n argitaratutako eztabaida eta argumentazioak. Ondorioz, jarraitzaile kopuruen aldetik, Enbata.info-k bere lehen urteurrena marka guziak hautsiz ospatu du, milaka herritarri mezu abertzale eta progresista hel araziz.

Horrez gain azpimarratzekoa da Enbata.info datu base preziatua dela Iparraldeak bizi izan dituen hainbat borroka eta gainditu behar dituen erronkei buruz hitz gakoen bidez (EHLG, Berhocoirigoin, Batera, AHT edo LGV , etab.), “Bilatu” gunean, egoeraren ulertzeko lagungarriak diren artikulu edo autoreen aurkitzeko.

**Komunikazio tresna beti egokituz.** 1960an sortua, Ipar Euskal Herriko borroka abertzalearen historiaren parte handi bat da Enbata. Harek ditu lehen ekintza antolatuak burutzen, batez ere 1962 eta 1963ko Itsasuko Aberri Egunak, Estatu Frantsesean kokatua den Euskal Herriko zatian mugimendu abertzalea sortuz. Enbata lehen garai batez kazeta eta mugimendu politikoa da aldi berean.

1975etik goiti Enbata berriz argitaratzen da, kazeta gisa bakarrik, edozoin alderdi politikoren menpe izan gabe, nahiz eta ezker abertzalearen ildo editoriala segitu duen hastapenetik.

Lehen 8 urteetan hilabetekari zena, 1968ko urritik goiti astekaria izan da, hastapenean bezala hilabetekari izaiterat itzultzen delarik 2013ko martxoaren 28az geroztik.

**Mende erdi baten esperientzia, sarean murgiltzen.** Itsasuko Aberri Eguna sortzailearen 50. urtebetetzea hurbiltzen zelarik, hausnarketa sakona egin ondotik, Enbata-k geroari buruzko parioa egin du eta numerikoaren bihurgunea hartu du publiko berrien hunkitzeko helburuarekin, batez ere Ipar Euskal Herrian mende erdi bateko borroka abertzaletik datozen belaunaldi gazteak. Alabaina, Euskal kausaren milaka eta milaka militante, 1963an ziren hamar bat aintzindarien laguntzerat eta indartzerat etorri dira.




Interneteko bertsioa aldiz astekaria da. Web-astekari horren burutzea, 2006ko urtarrilaren lehenetik landa Enbatan 4 orrialdeko kahierra animatzen duen Alda! taldeak bere gain hartzen du, beti estrategia abertzalearen eztabaidaz eta produktibismoari eta kapitalismoari alternatiba sozial eta ekologikoetaz arizanez. Alda!, Manu Robles-Arangiz Fundazioak bultzatzen du.

Fundazioko Iparraldeko taldeak 2005etik geroztik formakuntza lan permanentea eremaiten du, abertzalea eta altermundialista, Iparraldeko hiru euskal probintzietan (Lapurdi, Baxe Nafarroa eta Xiberoa). Eztabaida, hausnarketa taldeak bai eta Baionan duen egoitza animatzen ditu ere, euskal nazio eraikuntzaren arloan, ekologian edo sozialaren arloan lan egiten duten beste eragile ugariekin partaidetzak eginez.

**Enbata.info erabili eta indartu.** Enbata hilabetekariaren irakurleen urteko harpidetzak proiektu editorial osoa diruztatzen du, hau da paperezko hilabeteko bertsioa eta interneteko astekaria. Gisa hortan, belaunaldi guzien artean, heldu diren 50 urteetako bidea elgarrekin hartzea du xedea Enbata.info-k. Hitzordua finkatua da beraz 2063an, Euskal Herri euskaldunaren zerbitzuko, populu libre eta solidarioen Europa bateratuaren alde, bidezkoa, ekologikoki iraunkorra, bakezalea eta demokratikoa den jendartearen aldeko mende erdi bateko lanaren bilan kolektiboa egiteko!

GIZARTE EREDUA
POLÍTICA SOCIAL



# Azken muturrean

BABES SOZIALEKO GASTUARI DAGOKIONEZ HEGO EUSKAL HERRIA EUROPAR BATASUNEKO AZKEN POSTUETAN DAGO

› IÑAKI ZABALETA

**Eurostatek Europako estatuek gastu sozialean zenbat gastatzen duten argitaratzen du,** eta honek gure herrialdean egiten den gastuarekin alderatzeko aukera ematen du, datu honek azaltzen baitu estatu eta herrialde bakoitzeko agintariek gizartearen beharrak bermatzeari zenbateko lehentasuna ematen dieten.

Europako gizarte babesari buruz argitaratutako azken datua 2011koa da, eta Europar Batasuneko 28 estatuen gastu sozialaren bataz bestekoa BPGd-aren %29,1ekoa da. Hau da, 2011an zehar sortutako 100 eurotatik 29,1 babes sozialera bideratu ziren bataz beste Europan. Euroguneko bataz bestekoa, bestalde, %29,8koa izan da.

Dena den, estatu ezberdinen artean desberdintasun handiak daude. Gizarte babesean gastu altuena egiten duten estatuak Danimarka (BPGd-aren %34,2), Frantziar Estatua (% 33,6) eta Herbehereak (% 32,3) dira. Eta Euroguneko gastu sozialik txikiena duten estatuak berriz, Luxenburgo (% 22,5), Espainiar Estatua (% 26,1) eta Portugal (%26,5) dira.

**Estos datos no significan que la política que se hace en otros lugares de Europa sea la mejor para la clase trabajadora, pero sí que es posible hacer otro tipo de política**

**Hego Euskal Herriko gizarte babeseko gastuak aztertzen baditugu,** Nafarroa Euroguneko gastu sozialik txikiena duen herrialdea da (2011an BPGd-aren % 19,4), bataz bestekoa baino 9,6 puntu gutxiago. Honek suposatzen du Nafarroan 1.896,5 milioi euro gehiago gastatu beharko liratekeela babes sozialean Europako bataz besteko gastua berdintzeko. EAEko gastu soziala BPGd-aren % 24,5 izan da 2010ean (argitaratutako azken datua), eta Euroguneko hirugarren txikiena da.

Nafarroak eta Luxenburgok dute soilik gizarte gastu txikiagoa, Europako bataz bestekotik 4,8 puntura. Honek EAEn Europako bataz besteko gastua berdintzeko babes sozialera bideratzen denaz gain beste 3.125,8 milioi euro bideratu beharko liratekeela suposatzen du.

Hego Euskal Herrian babes sozialean Europako bataz bestekoa baino 5.022,3 milioi euro gutxiago gastatzea erabaki politiko bat da. Gizartearen pobretzea eragitea erabaki politikoa den moduan. Eta horretan dabiltza lan erreformak, murrizketak eta doitzeak, pentsioen murrizketak eta abar egiten dituztenean.

**BABES SOZIALEAN GASTUA** (BPG) »

| | 2010 | 2011 |
|---|---|---|
| Danimarka | 34,3 | 34,2 |
| Frantziar Estatua | 33,8 | 33,6 |
| Herbehereak | 32,1 | 32,3 |
| Belgika | 30,1 | 30,4 |
| Grezia | 29,1 | 30,2 |
| Finlandia | 30,6 | 30 |
| 15-EB | 30,1 | 29,8 |
| Italia | 29,9 | 29,7 |
| Irlanda | 28,5 | 29,6 |
| Suedia | 30,4 | 29,6 |
| Austria | 30,6 | 29,5 |
| Alemania | 30,6 | 29,4 |
| **28-EB** | **29,3** | **29,1** |
| Erresuma Batua | 27,4 | 27,3 |
| Portugal | 26,8 | 26,5 |
| Espainiar Estatua | 25,8 | 26,1 |
| **EAE** | **24,5** | |
| Luxenburgo | 23,1 | 22,5 |
| **Nafarroa** | **20,2** | **19,4** |

## LEGEAREN BUELTAK
## PAGINAS JURIDICAS

# Erabaki politiko eta bidegabea

LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAK GIPUZKOAKO ERAIKUNTZAN GUTXIENEKO LAN-BALDINTZAK EZARTZEN DITUEN FORU ARAUA AUZITEGIETARA ERAMAN DU

› **HAIMAR KORTABARRIA**

**Rajoyren Gobernuak onartutako eta bere alderdi politikoak babestutako 2012. urteko lan-erreformaren berritasun esanguratsuenetako bat enpresa hitzarmenari emandako lehentasuna da.** Horrek, gaurdaino ezagututako negoziazio kolektiboa erabat aldatu du. Sektore hitzarmenetan jasotako lan-baldintzak sektore horretako gutxieneko lan-baldintza izateari utzi diote.

Egoera berri horrek eraikuntzaren sektorean sor zezakeen lan-baldintzen dumpinga sahiesteko neurriak hartzea erabaki zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak. Foru arau bidez, eraikuntzako sektorean kontratu publikoak sinatzeko nahitaezko baldintza bat ezarri du: enpresa horrek bere langileei Gipuzkoako Eraikuntzako Lan-hitzarmena aplikatu beharko die.

Foru arauaren kontra bi erakunde publiko, guztion diruaz funtzionatzen dutenak, alegia, oldartu dira. Bata, Estatuko Administrazioaren aparatuko parte den Estatuko Abokatua. Bestea, bertako erakunde bat, Lehiaren Euskal Agintaritza. Biek ere epaitegietara eraman dute foru-araua.

Estatuko Abokatua erreforma sinatu zutenek izendatua da eta bere errekurtsoa, beraz, ulertzekoa. Lehiaren Euskal Agintaritzaren errekurtsoa ulertzea, ordea, ez da hain erraza.

Administrazio organo berezia da Lehiaren Euskal Agintaritza. Egunerokoan bere berri ez dugu izaten, baina aldiro-aldiro hor dagoela erakusten digu. Bere web orrialdean irakur daitekeenez, enpresek eta administrazioek merkatuko joko-arauak errespetatzen dituztela kontrolatzea da Agintaritza horren xedea, guztion onura eta kontsumitzaileen mesedea lortzeko asmoz.

Xedea enpresen arteko lehiakortasunean kontsumitzaileen eskubideak kaltetuak atera ez daitezen lortzea bada, ezin daiteke ulertu zergaitik egiten den sektore batean gutxiengo lan-baldintza batzuk ezartzen dituen arau baten aurka.

Lehiaren Euskal Agintaritzaren errekurtsoan aurkeztutako argudioen arabera, foru arauak legez gutxiengo diren baldintzak baino baldintza hobeak ezartzen ditu eta hori neurriz kanpoko eskakizuna da sektore horretan kontratu publikoak sinatu nahi dituzten enpresentzat.

**Argudio fribolo bezain onartezina.** Zer esanik ez dago, baina gogoratzea ere ez dago sobera, *lehia sanoa* bermatzera etorritako erakunde hau sortzea erabaki politikoa izan zela. Alegia, gaur egungo gizartea kudeatzen dutenek lehiakortasun printzipio hori beste printzipio batzuen aurretik bermatzeko beharra ikusiko zuten nonbait. Sarritan ahaztu egiten da gaur juridiko dena juridiko izan aurretik politiko edo ideologikoa izan zela. Horregatik, kontzeptuak eztabaidan jartzeak zilegi behar luke, eztabaida juridikoak sarritan kontzeptua bera zalantzan ez jartzeko bide egoki izaten baitira.



Eta kasu hontan halako zerbait gertatzen da. Baliteke Lehiaren Euskal Agintzaritzak Gipuzkoako Foru Arauaren aurka egiteko arrazoi teknikorik aurkitu izana, baina erabakia politikoa da, guztiz bidegabea izateaz gain. Aurretik aipatutako lan-erreforma onartu zutenen erabakia langileen lan-baldintzen zorua legeak ezarritako gutxiengoetara –LGS/SMI da adibiderik argiena– eramatea izan da, enpresari eta sindikatuek sektoreetan ezarritako baldintzak gutxiengo izateari utziz.

Lehiakortasunaren beharraz asko hitz egin digute krisiak eztanda egin zuenetik bidea markatu diguten agintari, gobernu eta patronalek : "Enpresa lehiakorragoak behar ditugu eta lehiakortasun hori enpresariari malgutasun tresnak eskura jarrita lortuko da, enpresa bakoitzeko lan-baldintzak enpresaren momentuko egoerara moldatuz".

Hitz horietan aurki dezakegu, agian, Lehiaren Euskal Agintaritzak Gipuzkoako Foru arauaren aurka egin izanaren benetako arrazoia. Eta norbaitek pentsa lezake: Lanbidearteko gutxieneko soldata edo zerbait gehiago kobra lezaketen eraikuntzako langileak ez ditu ba aintzat hartu Lehiaren Euskal Agintaritzak? Hori bai ikuspegi praktikoa. Egiari zor, horrelako soldatadunek asko kontsumitzerik ere ez lukete izango...

## TREMENDO ERROR ¿INTERESADO?

**La Autoridad Vasca de la Competencia** ha impugnado la Norma foral de Gipuzkoa por la que se imponen determinadas condiciones laborales mínimas-contempladas en el Convenio provincial de la Contrucción de la provincia- en la obra pública.

Resulta del todo inaceptable y frívolo que un organismo público se dedique, en nombre de la competencia, a atacar normas que pretenden evitar que la competitividad del sector se centre en el dumping, es decir, en la devaluación de las condiciones laborales del sector.

KRONIKA
DE LA A A LA Z

# Dirua baino gehiago

› GORKA QUEVEDO

**Soldatak dira kapitalismoak azken urteetan gogortu duen eraso basatiaren galtzaile nabarmenetakoa.** Euren aurka erasotuz kapitalak abantaila ugari lortu nahi ditu: bere tartaren zatia handitu, langile-klasearena txikitu, beldurra zabaldu, miseria baten truke lan egiteko prest legokeen langabe-poltsa bat sortu, sistema publikoa ahuldu bere ardurak hartuko lituzketen sistema pribatuaren mesedetan... Horregatik erasoei aurre egin eta soldatak defendatzen jarraitzeko ordua da. Soldata dirua baina askoz gehiago delako.

**A ›Azkuna:** Martxoaren 20an Iñaki Azkuna Urreta (Durango, 1943) zendu zen, gaixotasun larri baten ondorioz. Ibilbide politiko luzeko pertsona, 1999. urtetik Bilboko alkate zen. Eta argi dago bilbotarren gehiengo zabal baten babesa zuela. Datuei erreparatu besterik ez dago. Edo zehazkiago, hauteskunde emaitzei.

**B ›Bozak:** Martxoaren 23 eta 30ean udal hauteskundeak izan ziren Frantziar estatuan. Bi gauza aipatu litezke. Batetik Ipar Euskal Herrian indar abertzaleen emaitza onak –irakurri Txetx Etcheverry-ren artikulua–. Bestetik agintean dagoen Alderdi Sozialistaren porrota. Hauteskunde emaitza eskas horiek paradoxa baten aurrean uzten gaituzte: boz-emaileen sektore handi batek bizkarra eman dio François Hollanderen alderdiari, ezkerreko politikei muzin egin eta kapitalaren alde agintzen ari delako. Trukean, porrotaren ondorioz izandako gobernu aldaketan are eta eskuinerago biratu du ontzia Alderdi Sozialistak. Horren lekuko Hollande presidenteak Manuel Carlos Valls izendatu du lehen ministro berri gisan. Norbaitek ulertzen al du?

**C ›Cabacas:** Apirilaren 5ean bi urte bete ziren Iñigo Cabacas zendu zela, Athletic-en partidu baten ostean Ertzaintzak egindako karga batean buruan pilotakada bat jaso eta gero. Bi urte benetan zer gertatu zen jakin gabe eta, okerrena dena, bi urte erantzukizuna dutenek zer gertatu zen jakiteko borondaterik erakutsi gabe.

**D ›Dago:** Herri gisan geure etorkizuna libre eta demokratikoki erabakitzeko dugun eskubidea zure eta nire esku dago. Gure esku, denon esku. Hori da Gure Esku Dago dinamikak lau haizetara zabaldu nahi duena, eta argi dago ideia hori zabaltzen ari dela. Horren lekuko martxoaren 29an Bilboko Casillan egindako ekitaldia eta ekainaren 8ko giza-kateak orain arte jaso duen babes handia. Asko falta da egiteko, baina hori ere gure esku dago.

**E ›Ereduak:** Landeiaz Landeia saiatzen gara pil-pilean dauden hainbat lan gatazka zabaltzen, antolakuntza eta borrokaren bidez emaitza onak lor daitezkeenaren erakusgarri. Azken asteetan ere izan ditugu eredu ugari, egindako lan apartari esker akordio onak lortu diren kasuak: Urnieta eta Irungo Ibilgailuen Azterketa Teknikoa, Bizkaiko Erresidentziak, Laminaciones Arregui...

**F ›Fattorelli:** Finantza boterak hainbat tresna erabiltzen ditu herriak eta, batez ere, herritarrak domeinatzeko. Horietako bat zorra da, edo, zehazkiago esanda, guztion artean ordaintzen dugun legez-kanpoko zor bidegabea. Berebiziko garrantzia

**La cadena de sucesos tras el golpe de estado en Ucrania evidencian que estamos ante la versión 2.0 de la 'Guerra Fría'**



duen gai horren harira, apirilean Maria Lucia Fattorelli auditore brasildarra izan zen gurean. Gogoeta garrantzitsuak utzi zizkigun Fattorellik. Manu Robles-Arangiz Fundazioak horiek guztiak bildu eta bere web atalean eskegi ditu.

**G ›Gezurra:** Edo, zehazkiago, gezurrak. Bata bestearen atzetik. Hori da Kutxabank-en pribatizazioa diseinatu zuten horiek egiten ari direna. Egoera larria eta kezkagarria da: aurrezki-kutxen pribatizazio prozesua azken urteetako albisterik kezkagarrienetakoa da.

**H ›Hauteskundeak:** Maiatzaren 25ean Europar Batasuneko Parlamentua aukeratzeko hauteskundeak izango dira. Izugarria da denboran atzera egin eta azken hauteskundeetatik –2009an– Europar Batasunak zentzu guztietan izan duen atzerakada eta hondamendia aztertzea: ekonomikoki, sozialki, politikoki...

**I ›Intriga:** Baldin eta bazegoen, amaitu dira intriga guztiak: Nafarroako Gobernuak bere agintaldia osorik beteko du. Izan ere dagoeneko amaitu da Nafarroan hauteskundeak aurreratzeko epea. Beraz, 2015eko maiatzera itxaron beharko da Nafarroako herritarrei hitza emateko.



**J ›Juan:** Juan Moscoso (Iruñea, 1966) PSNren kide aipagarria da. Azken udal hauteskundeetan Iruñeako alkategai izan zen. Egun diputatu da Madrilgo Parlamentuan. Berriki 'Ser hoy de izquierdas' liburua argitaratu du. Bere irakurketak pista ugari ematen ditu bere alderdiaren eta orokorrean II. Mundu Gerraren ostean sozial-demokraziaren esparruan kokatu ziren alderdien porrota ulertzeko. Liburuan gisa honetako harribitxiak irakurri litezke: "klaseak, egun batean ulertu egin genituen gisan, desagertu ziren"; "herritarrak jada ez dira lanmunduan duten egoeragatik definitzen"; "ezkerrak klase diskurtsoa ahaztu beharra dauka"; "ezker demokratikoa erakundeetan dago, ez Parlamentuak inguratzen"...

**K ›Krimea:** Martxoaren 16an Krimeako herritarrek Ukrainiarekiko independentzia aldarrikatzearen eta Errusiako Federazioaren parte izatearen alde bozkatu zuen –bozen %96,77 %85,9ko partehartzearekin–. Ukrainian izandako estatu-kolpeak eta bere ondorioek Krimeako herritarrengan eragindako beldurrek prozesua azkartu dute, ezbairik gabe.

**L ›LHE:** Herritarrek hitz egin dute; edo, zehazkiago, sinatu. ELA azpikontratazioaren inguruan bultzatzen ari den Legegintzako Herri-Ekimenaren inguruan mintzo gara. Euskal Autonomia Erkidegoan sinadurak aurkezteko epea amaituta gure sindikatuak 109.396

## La de este año 2014 puede que sea la última Diada de Catalunya antes de convertirse en un nuevo estado europeo

firma bildu ditu, ekimenak aurrera egin zezan beharrezkoa zen kopurua –30.000– erraz gaindituta. Orain Gasteizko Legebiltzarrari dagokio gaia eztabaidatzea eta horren inguruan erabakitzea. Bien bitartean, Nafarroan aurrera jarraitzen du firma bilketak. Epea amaitzeko hainbat aste falta diren arren, bide onetik goazela aurreratu dezakegu. Animo!

**M ›M1:** Aurki egutegian letra larriz markatutako eguna izango dugu: Maiatzaren Lehena. Gure eskubideen alde kalera atera eta eraiki nahi dugun gizarte-eredu berria aldarrikatzeko eguna. Maiatzaren Lehenean, denok Bilbora!

**N ›NATO:** Aurreko Landeian azpimarratzen genuen Ukrainiako gertakariak Gerra Hotza deitutakoa amaitu zenetik ekialde-mendebalde gatazkarik larriena zela. Egunez egun gertaerek hori berresten dute. Berriki Ameriketako Estatu Batuetako presidente Barack Obamak NATO sendoagoa bat eskatu du Putini aurre egiteko. Mugimendu militarrak eta interes geoestrategikoak nabarmenak dira. Gerra Hotza 2.0.

**O ›Obiang:** Guineako diktadore anker Teodoro Obiangek ale eta anekdota bitxiak utzi dizkigu azkenaldian. Lehendabizi Adolfo Suarezen hiletara joan zen Estatu-buru bakarra izan zen; bigarrengoz esker hitz goxoak izan zituen Espainiako Erregearentzat, Cervantes Institutuan parte hartu zezan egindako lana ere eskertu zuelarik.

**P ›Pereira:** Andina Pereira de Brito. Hala deitzen zen Euskal Herrian genero indarkeriak hildako lehen emakumea. Hilketa martxoaren 18an izan zen, Mungian (Bizkaia). Etenik ez duen amesgaiztoa.

**R ›Ruanda:** Hogei urte bete dira 1994. urtean iragan mendeko gertakari lazgarrienetakoa lehertu zenetik: Ruandako genozidioa. Hutuen eta tutsien arteko gatazka, ehunka mila lagunen heriotza suposatu zuena. Mendebaldeak ere bere interesak izan zituen gatazka horretan –ezin ahaztu bertako aberastasunak, bereziki koltana izeneko minerala–; ezer gutxi egin zuen sarraski hura geratzeko.

**S ›Suárez:** Martxoaren 24an Espainiako gobernuko presidente ohi Adolfo Suarez hil zen. Franco ondoren eta Franco gabe gauzek berdin jarraitu zezaten garrantzia handia izan zuen laguna.

**T ›Tejero:** Antonio Tejero Molina militarra; bere seme Antonio Tejero Diez Guardia Zibila; 1981eko otsailaren 23ko gertakarietan parte-hartu zuten hainbat lagun; Jesus Muñecas Aguilar frankismoko polizia torturatzailea; Guardia Zibilaren egoitza bat; laguntasun bazkaria –paella bat, hain zuzen–; bazkari ondoko tragoak... Ez, ez da txiste bat edo filma baten gidoia, 2014ko Espainian gertatzen diren gauzak baizik.

**U ›Ulergaitza:** Anne Ganuzak 3 urte zituen eta Trebiñuko Argantzon herrian bizi zen. Martxoan ustez aparteko konplikaziorik gabeko barizelarekin gaixotu zen. Martxoaren 17an, barizelak eragindako shock baten aurrean familiak 112 telefonora deitu zuen anbulantzia bat eskatu eta Txagorritxuko ospitalera joan ahal izateko. Anneren familiak salatzen duenez Osakidetzatik Mirandako anbulantzia eskatu behar zutela esan zieten, Argantzonen bizi direlako, Trebiñun. Anne handik gutxira hil zen. Oraindik gauza asko daude argitzeko, baina zinez ulergaitza egiten da bere heriotza.

**V ›V:** Vot (boza) eta Victoria (garaipena) letrak adierazten duten 'v' hizki erraldoi bat osatuz Bartzelonako bi arteria nagusiak –Gran Via eta Diagonal etorbideak– jendez betetzea da 2014ko Diadarako ANCk proposatu duen erronka. Estatu independente bihurtu aurretik egiten den azken Diadaren aurrean ote gaude? PD. Espainiako Kongresuan azaroaren 9ko kontsultaren inguruan izandako saioak agerian uzten du Madrilen ez dutela tutik ere ulertzen Katalunian zer ari den gertatzen.

## Las anécdotas y comentarios de Teodoro Obiang, Antonio Tejero –padre e hijo– y Pedro Morenés están en el ADN de la 'Marca España'

**X ›Xenofobia:** Neurria: herrialdera heldu eta lehenengo sei hilabeteetan lana topatzen ez duten langile atzerritarrak kanporatzea. Helburua: Errumaniako eta Bulgariako langileen etorrera moteltzea. Hori da berriki Alemaniako Gobernuak aurkeztu berri duen 133 orritako txosten baten proposamenetako bat. Alemaniako gobernua aitzindari, beste behin, neurri xenofoboak aurkezteko orduan.

**Z ›Zinikoa:** Ez dago Espainiako Defentsa ministro Pedro Morenes definitzeko beste erarik. Martxoan Espainiako armadak gerra-praktika militarrak egin zituen Bardeatako tiro-poligonoan. Piloturik gabeko hegazkinak –dronak–, 250 kilotako indarra zuten bonbak, airelur Maveric misilak, benetako jomugen kontrako tiroak... Ba hona Morenes zinikoak esan zuena: "Gizarteak praktika horiek beste gastu sozial baten gisan ulertu behar ditu. Izan ere, segurtasunik ez badago ez dago oparotasunik, askatasunik eta ongizaterik".



# En campaña por los salarios y el empleo

"SOLDATA DIRUA BAINO GEHIAGO DA – LUCHAR POR EL SALARIO ES LUCHAR POR EL EMPLEO", LEMA DE LA CAMPAÑA QUE DESARROLLARÁ ELA EN LOS PRÓXIMOS MESES Y QUE SERVIRÁ DE APOYO A LA NEGOCIACIÓN COLECTIVA EN EMPRESAS Y SECTORES

› **ERREDAKZIOA**

**ELA lleva desde el inicio de la crisis advirtiendo que los salarios no son responsables de la misma,** que es falso que bajando sueldos se cree empleo -al contrario- y que el único objetivo de estas políticas es incrementar los beneficios empresariales y recortar los derechos/as de los trabajadores/as hasta niveles que nos retrotraen a la década de los 80. Este mensaje contracorriente se ha plasmado, ahora, en una campaña que, bajo el lema "Soldata dirua baino gehiago da – Luchar por el salario es luchar por el empleo", pretende llevar a las empresas y al seno de la sociedad el debate sobre la necesidad de incrementar los salarios para mejorar el empleo y las prestaciones sociales.

Para ello, se ha elaborado diverso material didáctico e informativo -folletos y carteles- destacando la edición de un video de imprescindible visionado en el que en apenas 4 minutos se resume a la perfección los porqués de la actual situación así como la alternativa y propuestas de ELA.

En el acto público de presentación de esta campaña -que se extenderá en el

**'Soldata, dirua baino gehiago da –Luchar por el salario es luchar por el empleo' kanpainaren helburua negoziazio kolektiboari enpresa eta sektoreetan bultzada emateko**

## DE IMPRESCINDIBLE VISIONADO

**Como parte de la campaña, ELA ha elaborado un interesante video de poco más de 4 minutos que resume a la perfección los porqués de la actual situación.
De imprescindible visionado.**

**http://www.ela-sindikatua.org/es/actualidad/noticias/luchar-por-el-salario-es-luchar-por-el-empleo**

**http://www.ela-sindikatua.org/eu/aktualitatea/albisteak/soldata-dirua-baino-gehiago-da**

**Zabaltzeko / Para difundir:
Bideoa euskaraz:
http://youtu.be/FpSpZYWD19Y
Video en castellano:
http://youtu.be/9coOr915A4c**

tiempo- el secretario general de ELA, Adolfo Muñoz, Txiki, afirmó que con la misma se trata de dar material y argumentos de peso a nuestra gente "para que en las empresas seamos capaces de defender los salarios y el empleo". Y es que tal como destacó, "el sindicato debe ser un obstáculo real a las medidas antisociales que plantea la patronal, con el inestimable apoyo de unos gobiernos que están a su servicio".

**Organización y movilización.** Muñoz animó a la gente de ELA a seguir incidiendo en el tremendo esfuerzo de desmontar el discurso dominante - con gran eco en los medios de comunicación- de que cuanto más bajen los salarios más empleo se creará. "Es mentira, se ha demostrado que es mentira, y no hay más que ver las cifras de paro. Es pura ideología para defender los beneficios empresariales", explicó, para añadir, a continuación, que el papel más útil que puede jugar el sindicato en la actual coyuntura es convencer a la gente de que se organice en las empresas, paso previo e imprescindible a la lucha. "La organización sindical es un elemento imprescindible para la defensa de los intereses de los trabajadores y trabajadoras" -aseguró, para abogar, finalmente, por la "movilización sindical y social" como única manera de cambiar las políticas.

Txiki adelantó que esta campaña se adaptará a las necesidades de la negociación colectiva en sectores y empresas, para terminar afirmando que "hace falta menos retórica y más acción sindical", en clara referencia a los que siguen apostando por un diálogo social que ha mostrado su fracaso, tanto en Navarra como en España.

# BADITUGU ALTERNATIBAK ETA PROPOSAMENAK

**Egungo krisialdiaz lan-baldintzak okertzeko baliatzen ari dira.** Botere publikoak ezartzen ari diren politikek (erreforma laboralak, negoziazio kolektibokoak, arlo publikoan egiten diren murrizketak, pentsioenak, gizarte-prestazioak...) baita enpresen erabakiek ere (enplegu murrizte gogorrak, soldaten aurkako erasoak eta malgutasuna areagotzea), biztanleria gehiena pobretzea dakarte.




Politika bidegabeak ezartzen dizkigute, eta gainera nahi dute horiei aurre egin gabe geratzea. Lan-harremanen arloan banako erlazioara jotzeko saio nabarmena ari ga gertatzen, langilea enpresaren aurrean bakarrik gera dadin. Badakite guri batasunak ematen digula indarra; ahulagoak garela ekintza kolektiborik gabe, eta enpresarioak aurrean defentsa kolektiborik topatzen ez badu soldatapeko langileari nahi duena eginaraz diezaiokeela. Bestalde, jarrera autoritarioa ere ageri da, mobilizazioa eta borroka kriminalizatzeko urratsak egin nahi baitira.

ELAk martxan jarri duen kanpainarekin soldaten eta enpleguaren aurkako erasoa kokatu nahi du, politika horien ondorio sozial eta ekonomiko lazgarrien berri eman, eta erakutsi badaudela alternatiba errealak biztanle gehienentzat hobekuntza argia lortzeko. Halaber, kapitalaren hainbat tesi gezurtatu nahi dugu, ideologia hutsa diren aldetik, hori bai, gobernuen babesa jasotzen duten tesiak.

Halere, ez da aski jakitea gauzak horrela direla. Egungo egoeratik ateratzeko ezinbestekoa da antolatzea eta borrokatzea. Indar-erlazioa da gakoa. Gure eskubideen alde ekintza kolektiboa egiteko unea dugu, lantokietan antolatuz eta mobilizatuz. Horixe baita garaitzeko daukagun aukera bakarra.

## ALTERNATIBAK ETA PROPOSAMENAK

**1. Enplegu duina sortu eta eros-ahalmena gehitzeko politikak.**

- KPIz gaindiko soldata igoerak.
- Estaldura sozial duina.
- Gutxieneko soldata duina.
- Lanaldi laburragoa, soldata jaitsierarik gabe.
- Aurrekontu eta zerga-politikak errotik aldatzea.
- Arlo publikoa garatzea, batik bat Ongizate-Estatuarekin lotutako zerbitzuei dagokienea.
- Enplegu berdeen sustapena.

**2. Gutxiengo baten mesedetan pobretzen gaituztenak agerian utzi.**

**3. Lantokietan antolatu eta mobilizatu.**

- Lantokietan afiliatu eta antolatzea.
- Mobilizazio sindikal eta soziala.
- Ekintza kolektiboen eta mobilizazioren balioa aintzat hartu.

# Objetivo: 5.000 empleos más en Osakidetza

PEIO IGEREGI, RESPONSABLE DE OSAKIDETZA, DESGRANA EL PLAN DE EMPLEO ELABORADO POR ELA, QUE SUPONDRÍA LA CREACIÓN DE 5.000 NUEVOS PUESTOS DE TRABAJO Y GARANTIZARÍA LA CALIDAD DEL SERVICIO Y SU CARÁCTER DE PÚBLICO




› N.I.

**-En los últimos años vivimos un contexto de deterioro de las condiciones de trabajo en Osakidetza y, en consecuencia, del servicio sanitario en su conjunto. ¿Qué diagnóstico hace ELA de la situación?**

-Tenemos que empezar destacando el hecho de que partimos de una situación de escasez presupuestaria respecto al resto de países de nuestro entorno.

Asimismo, como consecuencia del aumento de la jornada (una media de 50 horas por trabajador/a y año), la eliminación de puestos de refuerzo o la falta de sustituciones se han perdido unos 3.000 puestos de trabajo los últimos 3 años.

Y no sólo eso. Además, Osakidetza está precarizando el empleo fomentando la contratación a tiempo parcial y el encadenamiento de contratos eventuales en lugar de contratos de larga duración.

Por si todo lo anterior no fuera ya grave, Osakidetza tiene un nivel de empleo oculto enorme, cercano al 30% sobre una cifra de empleo declarado estructural de 25.816 personas. Al hablar de empleo oculto nos referimos al nivel

## Enplegu-Eskaintza Publikoak egin behar dira, aldi baterako enplegu tasa %7tik behera jaitsiarazteko; egiturazko ordezkapenak egiteko kopuru nahikoa litzateke, horrela ezkutuko enplegu guztia azaleratzeko moduan

de contratación estable en Osakidetza, es decir, el diferencial entre las 25.816 contrataciones declaradas estructurales y el número real de contrataciones, que alcanza las 33.000 nóminas mensuales, de media.

Este nivel de eventualidad supone una situación de inseguridad laboral enorme para la plantilla ya que Osakidetza únicamente se compromete a mantener el empleo declarado estructural.

**-A este empleo oculto habría que sumar todo el empleo que Osakidetza ha subcontratado o mantiene bajo el sistema de concertaciones.**

-Así es. La subcontratación y concertación de servicios es algo totalmente habitual en Osakidetza, aunque sus resultados sean negativos tanto desde el punto de vista de calidad del empleo como del servicio ofrecido.

Prueba clara de ello, por poner sólo unos ejemplos, es la experiencia de Tolosaldea con la clínica Inviza, los problemas que nos estamos encontrando en el servicio de mantenimiento del nuevo Hospital de Gernika o la intensificación de la privatización del servicio de limpieza del Hospital de Basurto.

**-Denunciáis que Osakidetza sigue derivando, cuando no aumentando, los recursos públicos a actividades privadas, sin que haya realizado ningún estudio de impacto económico ni de calidad asistencial.**

-Osakidetza suele justificar estas decisiones de derivación de pacientes a la sanidad privada en la reducción de listas de espera, cuando la estructura de Osakidetza no se utiliza en muchos momentos (por las tardes) y se podría contratar a personal directo para reducir esas listas de esperas sin derivar pacientes.

Finalmente, a la hora de elaborar un diagnóstico de la situación como el que hemos realizado, no podíamos olvidar el hecho de que Osakidetza tiene el reto de una renovación enorme de su plantilla los próximos 10 años.

**-Alertáis de que si no se afronta a tiempo puede llevar a que no existan profesionales suficientes.**

-En concreto, 3.000 personas cumplirán 65 años en los próximos 4 años, y 14.000, en los próximos 15, prácticamente la mitad de la plantilla. De esas 14.000 personas unos 10.000 son personal sanitario que precisa de largos procesos formativos. Por ello, la previsión de renovación de la plantilla es un problema que Osakidetza debe afrontar de forma urgente si quiere poder relevar a la actual plantilla. Esta situación contrasta, por otra parte, con la salida de personas formadas a otros países.

Asimismo, el envejecimiento de la población vasca conlleva un aumento de la carga sanitaria, tanto por el aumento de la actividad asistencial como por el aumento de las enfermeda-



Peio Igeregi

des crónicas o mentales. Este aumento de la carga exige mayores dotaciones para poder mantener la calidad asistencial.

**-También denunciáis que la sanidad pública vasca arrastra desde un inicio ámbitos sanitarios infradotados.**

-Así es. Por un lado, la atención de la salud mental, la asistencia bucodental, oftalmológica o ginecológica son deficientes lo que ha provocado que los pacientes se vean forzados a acudir a la sanidad privada.

Por otra parte, el número de camas por cada mil habitantes es en 2,7 inferior a la media europea: 3,6 camas por cada mil habitantes, en el año 2011. La falta de camas supone un diferencial de unos 750 médicos y 1350 enfermeros o enfermeras con los que debería contar Osakidetza para ofrecer una cobertura sanitaria de calidad.

## Datozen lau urteetan 3.000 pertsonek 65 urte beteko dituzte, eta 14.000k 15 urteko epean

**-Evidentemente, la calidad del servicio sanitario no escapa a todo lo anterior. En vuestro diagnóstico habláis de colapso, incluso.**

-Toda esta situación ha mermado notablemente la calidad del servicio sanitario y ha aumentado las cargas de trabajo a cifras insostenibles. Lamentablemente, nos estamos acostumbrando a noticias sobre saturación de servicios, cierre de plantas en épocas vacacionales, a reducir el tiempo en consulta o al aumento de las listas de espera. Es más, de continuar la dinámica actual, Osakidetza puede entrar en una situación de colapso: no va a tener medios suficientes para atender con una mínima dignidad las cargas asistenciales actuales.

Aunque, quizás ésta sea una perspectiva deseable por parte de la Administración para poder tener la excusa que necesita para privatizar totalmente el servicio sanitario.

# PROPUESTAS DE ELA

**1. Reducción de la jornada laboral:** Exigimos volver a las 1592 horas de jornada anual, con 6 días de libre disposición y aumento de días adicionales en base a la antigüedad. Entendemos que esta medida puede crear **1500 puestos de trabajo** de forma inmediata, con coste estimado de 79,5 millones de euros.

**2. Jubilación de oficio a los 65 años en caso de llegar al 100% de la jubilación y medidas para adelantar la edad de jubilación y asegurar una renovación de la plantilla escalonada. Estas medidas ayudarían a crear 1200 puestos de trabajo cada año.**

- Exigimos adelantar la salida mediante planes de prejubilación a los 63 años.
- Para aquellos profesionales con conocimientos específicos, demostrables mediante criterios objetivos, proponemos la creación de la figura de formador, para que comparta sus conocimientos con el resto de profesionales. En todo caso, una vez superada la edad de jubilación no trabajarán con pacientes y sus tareas serán incompatibles con otro tipo de actividad retribuida.

**3. Revertir la falta de sustituciones y los puestos de trabajo amortizados.** Sustituyendo a todo el personal que cae en situación de IT y si se recuperasen todos los puestos de trabajo perdidos desde 2010 se podrían crear **1500 puestos de trabajo,** con un coste estimado de 79,5 millones de euros.

**4. Mejora de la calidad asistencial.**

- Establecer en la cartera de servicios de Osakidetza la salud bucodental, oftalmológica, la salud mental y la atención ginecológica como un servicio básico e integrarlo dentro de la red de centros de salud de Osakidetza con cupos de pacientes que permitan una atención de calidad.
- Incluir equipos de soporte paliativo en la atención primaria, con personal suficiente para asegurar una atención de calidad y permitir que personas con enfermedades terminales puedan morir rodeados de su familia y en un ambiente familiar. Esta atención domiciliaria supone un ahorro, por la liberación de camas hospitalarias.
- Elevar el número de camas a la media europea. En 2005 la diferencia era de 2,7 camas por cada 1000 habitantes. El diferencial actual supone que en el supuesto de mejor atención a estas camas se necesitarán más de 700 médicos/as y 1300 enfermeros/as, y tendría el subsiguiente impacto en el resto de categorías profesionales de Osakidetza.
- Contratar a trabajadores/as para poder aprovechar las instalaciones al 100% sin que suponga aumentar cargas de trabajo y horas de trabajo de la plantilla actual. Serviría para reducir las listas de espera.
- Asegurar en todos los ámbitos cupos médicos y de enfermería inferiores a 900 niños/as y 1400 adultos/as en la atención primaria. Estos cupos corresponden en un 75% a los y las auxiliares administrativos, para asegurar una calidad asistencial acorde con el aumento de las cargas de trabajo.
- Proponemos afrontar el efecto del "burn out" del profesional quemado, mediante el establecimiento del año sabático ya existente en la enseñanza.

**Todo ello trae consigo la necesidad de contratar, al menos, a 2.000 personas, con un coste estimado de 106,06 millones de euros.**

**5. Fijación de plantillas y criterios de contratación.**

- Exigimos Ofertas Públicas de Empleo suficientes para reducir la temporalidad por debajo del 7%. Supone unas 5.000 plazas de la plantilla actual . Además, todos los años debieran ofertarse todas las bajas vegetativas.
- ELA exige el establecimiento de unos criterios de contratación eventual estables y conocidos por parte de toda la plantilla antes de la celebración del siguiente proceso de OPEs.
- Exigimos transparencia absoluta en la contratación, instrumentos de control, tanto sindical como por parte de los trabajadores y trabajadoras afectados, y fórmulas de llamamiento que aseguren el contacto.
- Exigimos contrataciones por encima del 75% de la jornada, salvo en caso de reducciones de jornada. A tal efecto se realizarán estudios pormenorizados para asegurar cargas de trabajo suficientes y que no se realicen microcontrataciones. En ese sentido, se fomentará la creación de puestos de refuerzo estables para cubrir todas las necesidades habituales de Osakidetza, así como sustituciones del resto del personal.

**-El diagnóstico es muy claro y los ejes de actuación que plantea ELA, también. ¿Cuales son?**

-ELA acaba de realizar una propuesta de mejora de la calidad del empleo y creación de 5.000 puestos de trabajo. Es una cuestión de pura voluntad, de elección entre fortalecer la sanidad y el servicio público o apostar por su privatización.

**-Llevar adelante la propuesta de ELA supone, además, apostar por el autogobierno.**

-Así es. Apostar por una sanidad pública y de calidad es apostar por el autogoberno que queremos. Además, en nuestra batería de propuestas pedimos al gobierno vasco que de un paso adelante y que asuma en exclusiva competencias como la de la formación del personal sanitario de la CAPV.

Mirando al futuro, exigimos, asimismo, aumentar el número de estudiantes universitarios en el ámbito sanitario así como aumentar el cupo de personal Interno Residente (BIR, FIR, EIR o MIR) en aquellos ámbitos en los que se prevé falta de personal.

Esta programación propia debe servir para dignificar las condiciones de trabajo de todo este personal y evitar que cubran tareas estructurales cuando la residencia tiene un objetivo formativo. En caso contrario, deberían tener una remuneración acorde a sus funciones.

**-Me imagino que contempláis la posibilidad de que Gasteiz o Madrid no accedan...**

-Así es, pero tenemos plan B: la alternativa sería que los Departamentos de Educación y de Sanidad crearan una figura formativa propia de la CAPV, equivalente a las Residencias. Esta titulación validaría el empleo en Osakidetza y respondería a las necesidades propias de nuestro sistema sanitario.

También creemos que debiera aprovecharse esta oportunidad para insertar a todo este personal en el Plan de euskaldunización de Osakidetza.

**-Voy a hacer de abogado del diablo. La primera pega que cualquiera que lea vuestras propuestas puede hacer es la económica: ¿de dónde va a salir el dinero?**

-Este Plan de Empleo supone un coste estimado de 265,06 millones de euros en gasto de personal, cantidad a la que habría que sumar el gasto necesario en nuevas infraestructuras. Esos 265,06 millones de euros suponen un 15,14% del gasto actual en personal, una cifra comparable con la pérdida de poder adquisitivo acumulado en la plantilla de Osakidetza.

Por otra parte -y no nos cansamos de repetirlo- estamos a la cola de Europa en gasto sanitario: nuestras propuestas exigen una equiparación en este capítulo.




## Proposatuko dugu mobilizazioak amaitzeko guztira 37,5 orduko lanuzteak egitea, Osakidetzak inposatu duen gutxieneko lanaldi luzapena adina

El gasto público medio de la OCDE respecto al PIB en Sanidad era del 6,5% en el año 2007; sin embargo, el gasto aprobado por el Parlamento Vasco para los presupuestos del 2014 limitan el esfuerzo al 5,06% del PIB. Es decir, si en la CAPV hiciéramos el mismo esfuerzo en gasto sanitario que en la media de la OCDE debieran gastarse 1,44 puntos más, lo que supondría unos 1.050 millones de euros más al año.

Evidentemente, esta inversión sólo será posible con una reforma fiscal que haga pagar impuestos a quienes no lo hacen en estos momentos, es decir, cargando fiscalmente las rentas empresariales y del capital.

No hay que olvidar, tampoco, el diferencial en presión fiscal de la CAPV respecto a la media de la Unión Europea, que es cercano a los 5.000 millones de euros.

**-El diagnóstico está ahí; las propuestas, también: claras, concretas y cuantificables. Sinceramente, un gran trabajo. Pero, y ahora ¿qué?**

-El siguiente paso es hacer llegar este estudio y nuestro plan de empleo a la dirección de Osakidetza y al resto de sindicatos.

**-¿Y si Osakidetza hace oídos sordos?**

-Es la hipótesis de la que partimos ya que Osakidetza, hasta ahora, sólo se ha mostrado dispuesta a discutir sobre el mantenimiento de los 25.800 empleos declarados estructurales.

**- Zein dira arrazoiak ELAk erabateko ezetza emateko Osakidetzako Zuzendaritzaren Giza Baliabideen Planari?**

-Plan horretan pertsonalaren politika 2016. urtera arte nolakoa izango den aurreratzen da, baina ez dago batere zehaztapenik, oraingo egoera ontzat ematen da, nahiz eta enplegua izugarri suntsitu, behin-behinekotasunaren tasa hain altua izan, eta kontratazioaren prekarietatea hain nabarmena izan.

Gainera, Osakidetzak, lan-bizitza erretiro-adinetik aurrera luzatzeko, Sindikato Medicoarekin egindako akordioa plan horren zati gisa aurkeztu du. Akordio hori gutxiengo sindikalarekin egin da, modu antidemokratiko batez, ez da ezarri irizpide gardenik, ezta kontrolik ere, eta espero izatekoa zen bezala, jarduera honen eta osasun pribatuaren arteko bateraezintasunik ez da aurreikusi. Labur esanda, gure iritziz akordio hori onartezina da, edukiaren zein formaren aldetik, eta sentikortasun sozialaren eza adierazten du, eta baita belaunaldien arteko elkartasunik eza ere.

También en Osakidetza la clave se encuentra en la capacidad de organización de quienes ofrecen el servicio y quienes lo reciben, de su capacidad de movilización. Ante la probable cerrazón de la administración y su falta de negociación llevaremos nuestra reivindicación a la calle. En este sentido, ELA va a proponer que las movilizaciones -en las que trataremos de sumar esfuerzos con otros sindicatos- culminen en un total de 37,5 horas de paro en 2014, cifra coincidente con el aumento mínimo de jornada impuesto por Osakidetza.

Me gustaría concluir diciendo que estamos abiertos a recibir aportaciones y sugerencias tanto por parte de la plantilla como del resto de sindicatos de Osakidetza. Está en juego, ni más ni menos, que el futuro de nuestra sanidad pública.

# 109.396 sinadura azpikontratetetako lan baldintzak hobetzeko

LHE/ILPREN SINADURA-BILKETA EAEN AMAITU, ETA NAFARROAN ZIZTU BIZIAN DOA




› **ERREDAKZIOA**

**Legegintzako Herri Ekimena babesteko jaso dituen 109.396 sinadura aurkeztu ditu apirilaren 3an ELAk Eusko Legebiltzarrean.** Legegintzako Herri Ekimen honen bitartez, enpresak aldatzen direnean langile azpikontratatuen subrogazio-eskubidea izatea eta gutxieneko lan- eta soldata-baldintzak bermatu nahi ditu ELAk. Nafarroan hasi berria da sinaduren bilketa. Adolfo Muñoz *Txiki*ren esanetan "arduradun politikoek aukera paregabea dute enpleguaren lehentasuna erakusteko".

Legegintzako herri-ekimen honen bidez administrazio publikoetarako lan egiten duten azpikontratetako langileen lan-baldintzak hobetu nahi da. Izan ere, azken urteetako erreforma ezberdinek nabarmen kaltetu dituzte langileen eskubideak, administrazio publikoetarako lan egiten duten azpikontratetako langileak kinka larrian utzirik.

Zerbitzuak-eko idazkari nagusi Mirari Irurek oso ondo deritzo lortu den sinadura-kopuruari —gogoan izan 30.000 nahikoak zirela—, horrek erakusten digu zenbat preziatzen duen gizarteak zerbitzu publikoak kalitatezkoak izatea. "Jendeak ondotxo daki zerbitzuaren kalitatea loturik dagoela zerbitzua ematen duten langileen baldintzekin, eta kalitatezko zerbitzu publikoak izateko —azpikontratatuak izan arren— behar-beharrezkoa dela lan-baldintzak zaintzea", eta jarraitu zuen esanez "Administrazioek ezin dituzte eskuak garbitu arazo horretan".

**Lege-prozedura.** Behin LHEren aldeko sinadurak erregistratu ondoren, egiaztatuko da ea behintzat 30.000tan betetzen diren ezarritako betekizunak. Hori hala bada —eta bada—, LHE legebiltzarreko osoko bilkurara bidaliko dute, han LHE lege-proposamen moduan izapidetzen den bozkatuko da.

## De llegar esta ILP a debate parlamentario habrá que estar vigilante para que su contenido no sea descafeinado

Legebiltzarreko osoko bilkurak bide ematen badio izapidetzeari, orduan eztabaida-aldia hasiko da, legebiltzarreko taldeek zuzenketak aurkezteko aukera izango dute, gure aldetik proposamenaren alde ariko gara... Azken batean, edozein lege-proposamenekin eman ohi diren pausoak.

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak ezetza ematen badio LHE izapidetzeari, bertan behera geratuko da; eta legearen ikuspegitik alferrik izango ziren lorturiko hamarka mila sinadurak.

ELAk, beraz, burutu du bere eginkizuna; orain txanda EAEko legebiltzarreko taldeei dagokie.

Irurek azaldu duenez, sindikatua harremanetan sartu da legebiltzarreko talde gehienekin, ekimenaren nondik norakoa azaltzeko, eta osoko bilkuran bozkatu baino lehen, beste bira bat egiteko asmoa du.



# En Navarra, a todo tren

ELA DEBE RECOGER UN MÍNIMO DE 7.000 FIRMAS PARA SACAR ADELANTE SU ILP POR LOS DERECHOS LABORALES Y SOCIALES EN LAS SUBCONTRATAS DE LAS ADMINISTRACIONES PÚBLICAS NAVARRAS




› J.JAYO

**En Navarra, ELA dio el pistoletazo de salida a la campaña de recogida de firmas de su Iniciativa Legislativa Popular** en favor del mantenimiento del empleo y de unas condiciones mínimas en las subcontratas del sector público el pasado 12 de marzo. En concreto, esta ILP necesita un mínimo de 7.000 firmas para ser entregadas en el Parlamento de Navarra. El inicio de recogida de firmas en apoyo de esta ILP se produce con un retraso considerable respecto al de la CAPV por problemas técnicos y administrativos. Pablo Sánchez, de ELA-Zerbitzuak, explica los retos que plantea esta iniciativa.

**-Recuérdanos, a grandes rasgos, por qué se plantea esta ILP.**

-ELA plantea una ley para mejorar las condiciones de trabajo del personal de las subcontratas de lo público, que será discutida en el Parlamento de Navarra si se recogen, al menos, 7000 firmas, y así lo estiman los diferentes grupos.

Es destacable que ELA sea el único sindicato navarro capaz de poner en marcha una iniciativa seria para tratar de frenar recortes, mantener condiciones... mientras que otros lo único que han hecho es firmar convenios a la baja que ni siquiera tienen que ser cumplidos por las empresas.

Muy resumidamente, con esta ILP pretendemos socializar esta problemática y situar en el debate político la responsabilidad que tiene la Administración en las condiciones del empleo subcontratado.

## 7.000 sinadura bildu behar ditu ELAk legegintzako herri ekimena aurrera atera ahal izateko azpikontratetako eskubide laboral eta sozialen alde

La situación generada es producto de decisiones políticas, y su solución, también; es cuestión de voluntad.

**-¿Cuáles son los principales sectores que pueden estar afectados por esta ILP?**

-Todas las subcontratas del Gobierno de Navarra, Ayuntamientos y organismos públicos: Limpieza, Limpieza Viaria, Jardinería, Zona Azul, Gestión Deportiva, Transporte y Comedores Escolares en los colegios comarcales, Cafeterías y Cocinas de Osasunbidea, Ayuda a Domicilio, Empresas del sector de Oficinas y Despachos, Seguridad Privada, Transporte Sanitario, Transporte Urbano, Construcción de Obra Pública, Concesiones de Autopistas, Escuelas Infantiles... Es decir, miles y miles de trabajadoras y trabajadores.

**-La iniciativa tiene gran trascendencia tras una reciente sentencia.**

-Así es. Una sentencia fallada en Navarra permite la no subrogación en caso de que el servicio salga recortado; en muchos casos, el cambio de empresa puede suponer la pérdida del empleo.

Por ello planteamos en la ILP que todas las Administraciones Públicas, en todos los servicios subcontratados, exijan en los pliegos de condiciones la subrogación de las plantillas y el mantenimiento de sus condiciones de trabajo.

**-La ILP es una oportunidad, también, a nivel organizativo.**

-No nos vamos a conformar con recoger las firmas, sino hay que aprovechar para organizar a los colectivos afectados. Puede ocurrir que la ley no salga adelante, pero el trámite de la recogida de firmas hay que aprovecharlo para meter mociones de apoyo en los ayuntamientos y solicitar, allá donde podamos, la negociación de convenios de centro de trabajo que, además, deberían estar recogidos en los pliegos de condiciones, para que sus contenidos vinculen a las empresas adjudicatarias.

Hoy, la única garantía de que las condiciones pactadas se apliquen es recogerlas en los pliegos que regulan la adjudicación del servicio. No podemos perder de vista, sin embargo, que esta ILP establece unas condiciones mínimas, pero garantizar buenas condiciones sólo es posible negociando convenios de centro de trabajo. Ya hemos visto que la mayoría de los convenios provinciales se han firmado en Navarra con recortes y sin blindaje ante la reforma, algo que va a seguir ocurriendo.

**-Toca recoger firmas, pero la aprobación de esta ley no depende de nosotros sino del parlamento navarro, en unos tiempos políticos convulsos...**

-Somos conscientes de ello, y también tiene que serlo el conjunto de la sociedad navarra. La aprobación de la ILP no depende de nosotros/as ni de llegar al número mínimo de firmas (7000) requeridas. La decisión última la tienen los partidos políticos con presencia en el Parlamento de Navarra. Los políticos tienen ante sí la oportunidad de demostrar que es cierto que su prioridad es el empleo y que están contra la reforma laboral del PP.

ELA propicia el situar estos temas en el centro del debate.

**-En una comunidad como la Navarra, salpicada de casos de corrupción, es también una oportunidad de demostrar que no todos los sindicatos son iguales...**

-ELA lleva muchos años demostrando –a pesar de los intentos de invisibilizarnos– que ni todos los sindicatos somos iguales ni nada tenemos que ver con prácticas legitimadoras de las políticas que se están haciendo, a cambio de subvenciones, ni mucho menos con cuestiones de corrupción...

# "La deuda pública es un mecanismo de saqueo de recursos a las clases populares"

MARIA LUCIA FATTORELLI EXPLICA EL LLAMADO SISTEMA DE LA DEUDA Y LA IMPORTANCIA DE LA HERRAMIENTA DE LA AUDITORÍA CIUDADANA



› **REDACCIÓN**

**-¿Qué es la deuda pública y por qué se genera?**

-Habría que distinguir en lo que debería ser y lo que se ha convertido. La deuda pública entendida como un complemento de los recursos de los estados para cumplir su misión ante los ciudadanos/as: sanidad, educación, servicios sociales... es una cosa, y la deuda pública existente en la actualidad, otra. Lo cierto es que la deuda pública se ha transformado en un mecanismo de saqueo de recursos a las clases populares, y no sólo en los países del llamado tercer mundo. Ustedes, aquí, también lo están sufriendo ya.

**-¿A quiénes sirve la deuda pública de los estados?**

-Eso es, precisamente, a lo que una auditoría ciudadana de la deuda debe responder: si la deuda pública es un instrumento de financiación del estado o un instrumento de transferencia de recursos del sector público hacia el sector financiero privado.

La auditoría ciudadana permite comprender los mecanismos que han generado deudas públicas y revelan la necesidad de avanzar en la movilización social para la construcción de una nueva arquitectura financiera, más justa y con equidad social.

**-¿Qué mecanismos generan deudas públicas a los países?**

-La financiación de dictaduras, transformación de deudas, medidas macroeconómicas, financiación de mega proyectos, rescates bancarios, negocios especulativos, modelo tributario no equitativo, préstamos ligados a elecciones o guerras...

**-¿Por qué las auditorías de la deuda pública?**

-Es evidente que la relevancia monetaria de la deuda pública y sus efectos en los presupuestos gubernamentales justifica y exige la permanente realización de auditorías orientadas a investigar todo el proceso de endeudamiento de un país a fin de determinar qué deudas son las que los pueblos están pagando y si éstas contienen vicios o fraudes; en definitiva, si son legales y legítimas.

La auditoría de la deuda pública es una herramienta técnica para examinar registros, estados financieros y ciclos operativos, pero es más que eso. Nosotros creemos en una auditoría integral y con participación ciudadana. Que la gente sea consciente de lo que está pasando y la magnitud es el paso previo a la movilización. Necesitamos una sociedad formada e informada como paso previo.

## Herritarren Auditoriak aditzera ematen du nolatan sortu diren zor publikoak finantza-sektorearen onura bakarrerako, eta gizarte-mobilizazioaren beharra azpimarratzen du, zuzentasun eta berdintasun handiagoaz finantza-arkitektura bat eraiki nahi bada

La auditoría de la deuda se basa en el derecho de acceso a la información, se fundamenta en pruebas y documentos, está amparada en el derecho y evidencia el verdadero rol y naturaleza de la deuda pública lo que permite realizar acciones políticas y legales en función de los resultados.

## Zor publikoa klase xeheen baliabideak bipiltzeko tresna bihurtu da

**-Decías antes que la auditoría de la deuda es integral, va más allá de los simples números**

-Una auditoría de la deuda revela más que lo contable. Revela cuál es el origen de la deuda pública; en qué fue invertido el dinero; quiénes son los beneficiados con ese préstamo; qué mecanismos y procesos generaron deudas públicas; qué deudas privadas fueron transformadas en deuda pública; cuánta deuda pública ha sido emitida para el rescate bancario; cuál es la responsabilidad de los bancos centrales y de la banca privada en el proceso de endeudamiento; cuál es la responsabilidad de las agencias de calificación de riesgo por devaluar deudas soberanas, provocando la elevación de sus costos y extrema especulación; cuál es la responsabilidad de las autoridades al permitir transacciones con paraísos fiscales; cuál es la responsabilidad del FMI y otras instituciones por forzar a algunos gobiernos a implementar planes de ajuste presupuestario y antirreformas contra los intereses de sus pueblos y en beneficio del sector financiero; cuáles son los impactos sociales, económicos, de género, regionales, ecológicos y sobre nacionalidades y pueblos provocados por el proceso de endeudamiento...

**-Llevas años militando en el movimiento de la auditoría ciudadana. ¿Qué conclusiones destacarías de tu experiencia en este campo?**

-En primer lugar, que el instrumento de endeudamiento público ha sido utilizado por el sector financiero como un mecanismo de saqueo de recursos públicos.

En segundo lugar, que la gestión y las políticas de los estados han estado y siguen estado orientadas por intereses privados. Todo eso está suponiendo un

## JULIE DUCHATEL

# “Kirol gertakari handiak hondamendi ekonomikoa eta soziala dira”

Julie Duchatelek argitaratu berri den txosten bat laburbildu zuen. Horren arabera kirol gertakari handiek —Joko Olinpikoak edo Futboleko Mundu Kopa— hondamendi ekonomikoa eta soziala dakarte; eta, bitxia bada ere, gero eta gehiagotan antolatzen dira herrialde gorakorretan.

Duchatelek esan zuenez horrelako gertakariek zor bidegabea sortzen dute herrialde antolatzaileetan, zeren inbertsio publiko itzela behar dute, eta trukean eskaintzen duten gizarte-onura hutsa edo hutsaren hurrengo da; areago, batzuetan haietaz baliatzen dira garbiketa soziala egiteko. Duchatelek ukatu zuen enplegua sortzen denik —aldi baterakoa eta prekarioa—, eta turismoa areagotzen denik. Transnazionalek, ordea, pagotxa biltzen dute: Coca-Cola, Mc Donalds, segurtasun pribatuko nazioarteko enpresak...

Ikerlari horrek, gainera, adierazi zuen gertakari horiekin batera estatua desjabetzen dela, kirolaren transnazional horien alde, logika neoliberalari jarraiki.

Duchatelek, hitzaldia amaitzeko, gizarte-mugimenduen papera nabarmendu zuen; izan ere, gertakari horiek burutzen diren bitartean, protestak isilarazten saiatzen dira, baina hala ere aipatu beharrekoak dira Hegoafrikako mobilizazio sindikalak, estadioak eraikitzeko obretan lan-baldintzak ziurtatzearren, eta Brasilgo bat-bateko mobilizazio soziala.

## ANTONIO SANABRIA

# “Hego Euskal Herriko zorra izugarri igo da”

Antonio Sanabriak zorraren sistema aztertu zuen Estatu Espainolarekiko eta Hego Euskal Herriarekiko. Estatuari dagokionez, datu ikaragarriak daudela esan zuen; horra hor, urte gutxitan zein azkar hazi den zor publikoa, guztirako zor pribatuak duen portzentaje altua, eta zor horren portzentaje handi bat kanpokoa dela, horrek dakartzan babes gabezia eta menpekotasuna dakartzala.

Sektore publikoa azterturik, Sanabriak zera aldeztu zuen: krisiaren eragilea ez zen gastu publikoa izan, diru-sarreren eskasia baizik, eta horren atzean errentarik handienen eta kapitalaren mesedetan den zerga-politika dago.

Sanabriak bankaren erreskatea maiseatu zuen, estatua gehiago zorpezen delakoan, eta horrek baldintzatzen ditu etorkizuneko politikak eta gastu soziala, zorra ordaintzera desbideratu behar baita.

Irakasle horren esanetan Estatu Espainolak bere aurrekontuen %30 bideratzen du zorraren interesak ordaintzera, eta joera goranzkoa da. 2010etik aurrera laguntza publikoetatik %90 finantza-sektoreak harrapatzen du. Alde horretatik, Sanabriak dio, eraginkortasun-arrazoiak direla-eta, erreskatearen jomuga jendea izan behar zela, eta ez banka.

Hego Euskal Herriari dagokionez, Sanabriak argitu zuen zorra goraka doala ziztu bizian, bai EAEn, bai Nafarroan; dena dela, Espainiako batez bestekotik behera dago oraindik. Zorra handitzeak ez du batere eraginik ekonomian, zorra ordaintzeko baita; eta hori interes-tasak txikiak izanik.

Estatuan gertatzen den bezala, hemengo zerga-sistema bidegabea da, Sanabriaren ustez, eta diru-sarreren arazoa dagoela baieztatu zuen.

## MIKEL NOVAL

# “Zor bidegabea ez dago zertan ordaindu”

Gizarte-politikaren arduradun Mikel Novalek ELAren pentsamoldea azaldu zuen, zorraren sistema eta herri-auditoria direla-eta. Novalek adierazi zuen sistemaren logikarekin hautsi beharra dagoela, eta zor bidegabea ez ordaindu. Eta ondoren ziurtatu zuen Hego Euskal Herriko zorraren igoerak zerikusia zuela zerga-politika bidegabe batekin, gizarte-sostengurik gabeko obra erraldoiekin eta bankaren erreskatearekin; gastu sozialarekin baino. Novalek zifretan adierazi zituen osasunean eta hezkuntzan egindako murrizketak, non 2009an baino diru gutxiago sartzen den; zorra, ostera, bost aldiz handitu da ordutik hona.

Zor bidegabearen adibide moduan, Novalek alferreko azpiegiturak aipatu zituen, hala nola, abiadura handiko trena, errauskailuak, Los Arcos/Urantziako zirkuitua... eta zerga-politika bidegabea, gure aldundien diru-sarreren kaltetan doana.

Azkenik, ELAko gizarte-politikako arduradunak sindikatuaren ikuspuntua laburbildu zuen esanez sostengua berresten ziela herri-auditoriari, zor bidegabea ez ordaintzeari, sistema zeharo aldatzeari, arlo horietaz gizartea prestatze eta sentiberatzeari, beste erakunde batzuekin batera lan egiteari, eta mobilizazioari.

desarrollo socioeconómico trabado, de consecuencias tremendas: sacrificio social, exclusión, miseria y violencia. Este sistema de la deuda es una ofensa a los derechos humanos.

**-¿Cuáles son las características de la arquitectura financiera actual?**

-El panorama global se caracteriza por la financiarización, que es una fase del capitalismo iniciada en los años 70 que consiste en un modo de acumulación de la riqueza basado en el extremado poder del sector financiero mundial.

Poder consolidado por la desmedida y carente de escrúpulos utilización de instrumentos financieros, generados, principalmente, por “deudas” sin la correspondiente entrega de recursos: emisión de bonos, moneda y productos sin respaldo, comúnmente denominados tóxicos.

La consecuencia de todo esto es la expansión y concentración del poder financiero. Hay estudios que afirman que cerca de 50 empresas del sector financiero controlan el corazón económico mundial.

**-¿A qué se denomina el sistema de la deuda?**

-A la utilización del instrumento de endeudamiento público a la inversa: retirando recursos en vez de aportarlos, lo que ha posibilitado un gran esquema de dominación mundial.

La financiarización mundial ha sido posible gracias a una serie de factores que pasaron a regir la economía mundial y funcionan como engranajes integrados al sistema de la deuda, como son la creación de la Reserva Federal, la desreglamentación financiera, el fin de la paridad dólar-oro, los organismos financieros internacionales, las agencias calificadoras de riesgo y la creación del euro y el rol del Banco Central Europeo.

**-¿Cómo opera el sistema de la deuda?**

-A través de un modelo económico y tributario orientado a la obediencia de ajustes fiscales y presupuestarios, antirreformas, control inflacionario y arreglos contables... entre otras medidas impuestas por organismos internacionales.

A través de las reglas jurídicas: cambio de leyes que garantizan poderes para el sector financiero y dando prioridad al pago de la deuda financiera.

A través del poder político: una tecnocracia asume el poder político, y ese sistema de la deuda financia campañas electorales y medios de comunicación.

## Jendeak sistema honen gaiztotasunari erreparatzen ez dion artean, eta mobilizatzen ez den artean, eredua ez da aldatuko

## Horra hor Ekuadorren kasua, non, auditoria bat egin ondoren, kanpoko zorraren %30ari baino ez zion zilegitasunik aitortu. Subiranotasunaren ikasbide bat izan da, eta jarraitu beharreko eredua, oraingo errealitateari buelta emateko aukera badagoela erakusten diguna

La corrupción juega, también, un papel importante en este entramado ya que sirve para desviar la atención y justificar la aprobación de mecanismos antisociales.

Todo lo anterior tiene el apoyo imprescindible de los grandes medios de comunicación, por omisión o desinformación, consolidándose, así, una dominación financiera con gravísimas consecuencias sociales.

**-Afirmas que a pesar de las diferencias entre continentes y países, el sistema de la deuda tienen una forma de actuar similar, que existe un modus operandi común.**

-Así es. La secuencia podría describirse de la siguiente manera: 1. Se produce una crisis financiera provocada por los grandes bancos privados internacionales. 2. Se da una vinculación de la banca privada con el FMI. 3. El FMI interviene en temas de la economía interna nacional. 4. Se dan negociaciones que garantizan la transferencia de recursos públicos hacia los mismos bancos privados que provocaron la crisis. 5. De esa manera las deudas privadas se transforman en deudas públicas. 6. Hay una serie de esquemas de contabilidad creativa utilizados por la banca privada acreedora. 7. Se generan deudas ilegales e ilegítimas y se da la existencia de papeles sin respaldo. 8. Reciclaje de papeles mediante su transformación en nuevas deudas o en otros activos mediante procesos de privatización. 9. Profundos costos y daños sociales. 10. Ausencia de transparencia y de acceso a documentos que revelan la verdad de las negociaciones.

**-El diagnóstico es demoledor, pero afirmas que la sociedad puede y debe actuar, que hay alternativa y estrategias de acción.**

-Así es. En primer lugar, hay que conocer la realidad financiera. En segundo lugar, hay que organizar una movilización social consciente.

¿Acciones concretas que hay que llevar a cabo?: una participación social efectiva en procesos de auditoría ciudadana; una democratización del conocimiento de la realidad financiera; revisar la política monetaria y fiscal para garantizar la distribución de la renta y la justicia social; cambiar la arquitectura financiera mundial; dar prioridad a los derechos humanos; trasparencia...

En mi opinión, las experiencias de auditoría de la deuda de Brasil y Ecuador deben servir para inspirar otras iniciativas en el mundo y recortar tiempo para las luchas sociales contra la esclavitud económica impuesta por el sistema de la Deuda.

**-La deuda ya no es un problema de países emergentes o del tercer mundo. Con esta crisis se ha convertido también en un problema en Europa. ¿Qué consejos nos puede dar?**

-Es un tema que debe estar en la agenda de los movimientos sociales; hay que hacer un esfuerzo enorme de formación y sensibilización social. Los poderes fácticos quieren que la deuda y la auditoría ciudadana sean algo ininteligible para seguir haciendo lo que quieren. Nuestro reto es hacerlo comprensible.

El modelo cambiará cuando la gente, la ciudadanía en su conjunto entienda lo que está pasando y luche por cambiar ese modelo; la auditoría ciudadana es el instrumento para lograrlo.



**Zorraren Sistema eta Ikuskaritza herritarrari buruzko jardunaldia antolatu zuten ELAk eta Manu Robles Arangiz Fundazioak Bilbon. Parte hartzaileak: Maria Lucia Fattorelli, Gizarte Zorraren Auditoritzako Koodinatzailea Brasilen eta Ekuadorreko Zor Publikoaren Batzordeko kidea; Antonio Sanabria, CADTMko (Hirugarren Munduko Kanpo Zorra Ezabatzearen aldeko Batzordea) kidea Liejan eta Julie Duchatel, Ginebrako Hirugarren Munduko Zentroko kidea.**
**Hona hemen laburpen luze bat zuen interesekoa izango delakoan.**

## ZORRAREN HERRITARREN AUDITORIAREN KASU ZEHATZAK

**María Lucía Fattorellik azaldu zituen bere hitzaldian Brasilgo eta Ekuadorko esperientziak,** herritarren auditoriaren inguruan. Ekuadorren auditoria ofizial bat egin zen, herritarren partaidetzaz. Zorraren 30 urte ikertu ziren, eta iruzurren eta irregulartasunen froga argiak agertu ziren. 2009an Correa presidenteak proposamen subirano bat egin zien hartzekodunei, herrialde hark banku pribatuekin eta nazioarteko bankuekin zituen zorraren %30 gehienez onartzeko. Mailegu-emaileen %95ek onartu zuten proposamena. Ekimen horrek ia 8.000 milioi dolarreko aurrezkia ekarri dio Ekuadorri; eta haren eraginez gastu sozialak oso nabarmen igo dira ordutik hona, batez ere, osasunean eta hezkuntzan egiten diren gastuak. "Ekuadorko ikasbidea harrigarria da, iruzurrezko zorra kentzeko aukera eta beharra badagoela erakusten baitigu.

Brasilen, 2000. urtean, gizarte zibila mobilizatu zen, auditoria bat eskatuz. Hamarkada bat geroago, parlamentuak zorrari ikerketa bat egitea lortu zen. Herritarren auditoria egiteko saiakerak ez zen aurrera atera, baina —María Lucía Fatorelliren hitzetan— mugimendu hura herri-mobilizazioen eredu interesgarria izan da hamarkada luze batean, eta nazioarteko loturak ere egin dira. "Brasil munduko zazpigarren ekonomia da; eta, hala ere, 50 milioi pobre daude. Zergak ordaintzen ditugu, eta trukean ez digute zerbitzu publikorik eskaintzen, bildutako diruaren zatirik handiena zorra ordaintzera baitoa" salatu zuen; eta ondoren zera gehitu zuen: "Lulak munduko indar-korrelazioa aldatzeko aukera izan zuen, baina ez zen fidatu bere boto-emaileengan".

**Gaian sakontzeko: www.auditoriacidada.org.br**

# “EB-AEB hitzarmenaren kontrako borroka irabaziko dugu”

SUSAN GEORGE-K EUROPAR BATASUNAREN ETA AMERIKETAKO ESTATU BATUEN ARTEAN NEGOZIATZEN ARI DIREN MERKATARIZA ETA INBERTSIORAKO HITZARMENARI BURUZ ESKAINI ZUEN HITZALDIAREN LABURPENA




› UNAI OÑEDERRA

**Berri txar asko emango ditut ,** baino baikor hasi nahi dut: borroka hau irabaz dezakegu. Garaipena lortzeko banpiroak hiltzeko estrategia erabili behar dugu, zer negoziatzen ari diren argitara atera egitasmoak hiltzeko. Hitzarmenak eduki larriak ditu langileentzat, gaixotu daitekeen edonorentzat, janariaren kalitateaz arduratzen direnentzat, fracking-az kezkak dituztenentza... Horiek guztiek jakiten badute zer ari diren negoziatzen, banpiroa hilko dugu. Erne beraz, hau ez baita merkataritza akordio soil bat, hau epe luzean korporazio transnazionalek eraman duten estrategiaren fruitu gutiziatua da.

**Nondik dator TTIP.** II. Mundu Gerra amaieran sortzen da GATT (General Agreement on Tariffs and Trade, Tarifa eta Merkataritza Akordio Orokorra). Herrialdeen arteko negoziazio mahai bat zen kolonizatzaileei produktu industrialen tarifak jaisteko, merkataritzaren liberalizazioan sakonduz joateko asmoz. Negoziazio hauetan ez zuten korporazio transnazionalek parte hartzen, laurogeigarren hamarkadan, ez dakit nork, kontrakoa erabaki zuen arte.

Mahai zabaldu honetatik sortu zen 1994an WTO (World Trade Organisation, Munduko Merkataritza Erakundea) liberalizazioa esparru gehiagotara zabalduko nahi zuen erakundea. Transnazionalak itxaropenez bete zituen erakunde hau, berehala bihurtu zen antzu, gauzak adosteko zituen prozedura konplikatuengatik.

Hori gainditzeko transnazionalek Europako eta Estatu Batuetako gobernuak akordio bilateral eta multilateralak sinatzera bultzatu zituzten. Eremu geografikoa mugatuagoak izan arren, estrategia arrakastatsua izan zen, 3.000tik gora akordio sinatzeaz gain, merkataritza akordiotan inbertsiorako akordioak gehitzea lortu baitzuten.

**Este no es un mero acuerdo sobre comercio, es la guinda a una estrategia que han llevado a cabo las corporaciones transnacionales durante mucho tiempo**

**En Estados Unidos todo es comerciable hasta que se pruebe científicamente que es perjudicial. La responsabilidad no recae en la empresa productora, sino en la persona consumidora**

Esaterako, Ekuador, Peru edo herrialde txikiagoei esaten zitzaien: politika hauek jarri behar dituzu abian, bestela ez dugu zuenean inbertituko. Mehatxu horrek, eta isolatuak gelditzeko beldurrak, herrialde asko eraman zituen Estatu Batuekin akordio hauek sinatu, eta merkataritzaren liberalizazioa besarkatzera. WTO gainditzea lortu zen horrela.

TTIPen (Transatlantic Trade and Investment and Partnership, Merkataritza eta Inbertsiorako Partzuergo Transatlantikoa) abiapuntua 1995ean koka dezakegu, Transatlantic Business Dialogue (Komertzio Transatlantikorako Elkarrizketa) martxan jarri zutenean Europako eta Estatu Batuetako korporazio transnazionalek, Estatu Batuetako Merkataritza Ganberak eta Europako Merkataritza Batzordeak.

Transatlantic Business Dialogue hau transnazionalek bultzatu zuten negozio gizonek gobernuburuekin harreman zuzena izateko aukera izan zezaten. Bertan sektore desberdinetako 70 gora transnazionaletako buruek hartzen dute parte, eslogan hau goiburu dutela: *gure artean adostua, edonon onartua*. “Gai hauetaz guk dakigu, zuek hobe duzue isilik egon” diote, eta hori lortzeko lobby lan izugarria egiten dute.

Multinazional nagusien buruek lortzen dute Europako Batzordeak beraiek nahi dutena onartzea. Esaterako, lehiakortasunari buruzko Europako txostena, hauek idatzi zuten, Europako Batzordeak onartu, eta orain lege bihurtu da. Berbera gertatzen da atlantikoaren beste aldean: Estatu Batuetako Merkataritza Ganberak urtean 136 milioi dolar gastatzen ditu lobby lanetan.

Helburua Europa eta Estatu Batuen arteko integrazioa bizkortzea omen. Baina, nork esan du europarrok Estatu Batuekin integratu nahi dugula? Bozkatu al du inork hori? Ez.

## Este acuerdo afecta a 800 millones de consumidores, a la mitad del PIB mundial y al 45% del comercio mundial...
## Es una barbaridad

Transnazionalek sortu kontseilu horietako batek erabaki du erregulazioak kendu behar direla bi eskualdeen arteko harmonizazioa lortzeko, amaierarik ez duen prozesu batean. Hau demokraziarentzat arrisku ikaragarria da.

**Zer da TTIP.** TTIPk barnebiltzen ditu: segurtasun estandarrak janarientzat, botikentzat, genetikoki eraldatutako organismoentzat eta fracking-arentzat, finantza egonkortasunerako proposamenak, kapitalak herrialdez aldatzeko askatasuna inbertitzaileentzat, pribatizazioak, zerga berriak blokeatzeko bideak (finantza transakzioentzat ezarri nahi duguna esaterako), lan legedian hobekuntzak galarazteko aukerak, negoziazio kolektiboa birrintzeko moduak, segurtasun klimatikoa bultzatzeko proposamenak geldiarazteko neurriak...

Inork ez daki zer jartzen duen negoziatzen ari diren testuan, ezta gure legebiltzarkideek ere. Hau demokraziaren aurkako erasoa da. Kontuan izan itun honek 800 milioi kontsumitzaile hartzen dituela barnean, munduko BPGaren erdia, munduko merkataritzaren %45a... Helburua merkataritza korporazio handien interesen mesedetan kontrolatzea da, negozioek gobernua erregulatzea. Eta, bide batez, Txina presionatzea politikak norabide berdinean bidera ditzan.

TTIP hau TAFTA deitzen zuten hasieran, baina izen hori alboratu zuten NAFTA zekarrelako gogora (Ipar Ameriketako Merkataritza Librerako Akordioa). Besteak beste, hitzarmen horrek Mexikon 2 milioi nekazari eta 28.000 denda txiki pikutara bidali zituen Estatu Batuekin lehiatu ezinik–bertan ere 682.900 lanpostu galdu ziren–.

Hego Korea eta AEB arteko halako hitzarmen batek esportazioak 10 bilioi dolarretan igoko zituela esan zuen Obamak, eta 3,5 bilioietan jaitsi ziren. 70.000 lanpostu berri sortuko zituela esan zuen ere, eta 40.000 galdu ziren. Hitzarmen hauek lortzen dutena da boterea korporazio transnazionaletan are gehiago kontzentratzea.

Arriskutsuena, ordea, TTIParen bidez sortu nahi den ISDS delakoa da (Investors to State Dispute Settlements). Inbertitzaile batek ikusten badu gobernu baten lege edo neurriek bere mozkinak murriztu dituztela, estatua auzitara eraman dezake nazioarteko arbitraje tribunal pribatu batean. Auzi hauen kostuak ikaragarriak dira, eta honi gehitu behar zaio estatuak korporazio transnazionalari ordaindu beharreko ordain saria epaia iristean (Ekuadorrek, adibidez, 1,1 bilioi dolar ordaindu behar izan zizkion Occidental Petrolium-i babes gune batean petrolioa erauzten galarazi ziolako; Suediako zentral nuklear batek auzitara eraman du Alemania, eta 4,2 bilioi dolar eskatzen dizkio bere ekoizpena eten arazteagatik). Edonola, argi dagoena da auzi hauek sabaia jartzen dietela erregulazioei, halako auzi batean dirutza galdu duen estatuak hamar aldiz pentsatuko baitu beste erregulazio bat ezarri aurretik.

Honi gehitu behar zaio, ISDS horrek norabide bakarrean egiten duela lan. Hau da, inbertitzaileek auzitara eraman ditzakete estatuak, beren ekinbideren batek egungo edo etorkizuneko mozkinak murrizteagatik, baina ezin da alderantziz egin, estatuek ezin dute inbertitzailerik auzitara eraman eragindako kalteengatik. Transnazionalak babesten dira, ez hiritarrak.

## Este tratado de libre comercio es un asalto a la democracia, a la clase trabajadora, al medio ambiente, a la salud de la ciudadanía y al bienestar

**Industriarentzat babesa, pertsonentzat arriskua.** Araudiak oso desberdinak dira AEB eta EBn. AEBn apenas dago erregulaziorik zerbitzu eta produktuentzako. Guztia merkaturatu daiteke, baldin eta ez den zientifikoki frogatzen kaltegarria dela. Ardura ez dago ekoizlean, erabiltzailean baizik. Erabiltzaileak frogatu behar du produktu edo zerbitzu batek kalte egin diola, berau merkatuan debekatzeko.

EBn, ordea, ez da hala. Ekoizlea da frogatu behar duena merkatuan jarri nahi duen produktu edo zerbitzua ez dela kaltegarria. Kaltegarria izan daitekeenaren susmoak badaude ezingo du merkaturatu. Hala, AEBn saltzen diren produktu kimiko asko ezin dira saldu Europan, AEBn nahieran zabaltzen diren transgenikoek mugak dituzte EBn... Itun hau sinatzen bada, gure osasuna arriskuan jartzeaz gain, Europako nekazari txiki guztiak pikutara joango dira, ezingo baitute AEBn diru laguntza oparoz ekoizten den nekazaritza industrialarekin lehiatu.

Fracking-aren kasua ere argigarria da. Fracking gasa ateratzeko produktu kimiko ugari erabiltzen dira lur azpian. Produktu horiek lur azpiko iturriak kutsa ditzakete. Zer egin zuen Bushek? Fracking-ean zebiltzan konpainiak ur edangarriaren kalitatea ziurtatzeko araudietatik kanpo utzi, hau da, konpainiei nahi zituzten produktu kimikoak erabiltzeko aukera eman. Ingurukoen iturriko ura kutsatuz gero, kaltetuek zientifikoki frogatu beharko dute kutsadura hori fracking-etik datorrela.

Industriarentzat babesa handitzen da, pertsonen arriskuak handituz, eta jendea larrituta dago. Europako Batzordeak eta Europako korporazio transnazionalek pertsonak babesten dituzten erregulazioak kendu nahi dituzte, baina hiritarrek ez. Mugimendu sozial eta sindikatuak mugitzen hasi dira, eta Europako Batzordeak, hortaz jabetuta, ikusten du zailtasunak izango dituela nahi duena egiteko.

Orain bi urte, Atlantikoko bi aldeetako lobby handienek idatzitako txosten bat topatu nuen, Regulatory Cooperation (Erregulaziorako Lankidetza), eman beharreko urratsak eta hartu beharreko neurriak zehazten zituena. Denbora pasa ahala, bazirudien hau bazterrean gelditutako ideia bat zela, baina orain, TTIP jasotzen ari den kontrako erantzuna medio, berriro ari dira txosten horretaz hitz egiten. Zer diote? EB eta AEB arteko Erregulaziorako Lankidetza Kontseilu bat sortuko dugu, TTIPtik banatua, momentuz, EB eta AEB artean erregulazio koherentzia bat eratzen joateko asmoz, legegileekin harremanetan izango diren lan taldeen bitartez.

Nire ustez honek esan nahi du, TTIP bere horretan ezin dutenez aurrera atera, halako kontseilu batekin pixkanaka pixkanaka neurriak hartzen joango direla, legegile eta hiritarrak kontuan hartu gabe. Eta oso argi esaten dute kontseilu hau betiereko izango dela, amaierarik gabea, etengabeko aldaketak egiten joateko, EBtik, bitartean, TTIPren onura liluragarriez kanpaina ikaragarria egiten duten bitartean. Ez dakit, gertutik aztertu beharko dugu nola doan gauza.

Amaitzeko, korporazioen presioari amore ematen badiogu, gure botere judiziala sistema pribatu baten esku uzten badugu, galdetu behar dugu zer demontre den Europako Batzordea, berak sinatu baitu hau. Hau guztia ona dela uste dute, edo ez dira AEBen aurrean altxatzera ausartzen? Mandatu hau sinatu duten gobernuburuek ez dakite zer eragin izango duen? Inozoak dira, ala honek guztiak arduratzen ez dituen indar antidemokratikoak?

Hitzarmen hau demokraziari eraso zuzena da, langile klaseari eraso zuzena da, ingurumenari eraso zuzena da, hiritarren osasunari eta ongizateari eraso zuzena da. Honi eman dakioken erantzun bakarra da: mahaitik jaiki, atea itxi, eta aulki bat hutsik utzi.

## Nos dicen que el objetivo es acelerar la integración entre Europa y Estados Unidos. Pero ¿quién ha dicho que los europeos queramos integrarnos con Estados Unidos?




**› ERREDAKZIOA**

Aurten ere egitura-krisia izan da aitzakia banka, patronala eta gobernuentzat hain kostata lortu dugun guztia suntsitzeko. Etengabeko erasoa jasaten ari gara kolektiboa den guztiaren aurka. Kapitalismoak abilezia du bere krisiak aukera bilakatzeko aberastasuna metatu eta demokrazia suntsitzeko. Patronalaren neurrira egindako erreformek lanari gizatasuna kendu, bidegabeko zorra ordaindu, murrizketa sozialetan oinarrituriko aurrekontuen egonkortasuna ezarri, fiskalitate aurrerakoiari uko egin, pentsioei erasoa… ekarri dute.

Politika hauek langabezia eta desberdintasunak areagotzen dituzte eta posibleak dira edozein oreka soziala bermatzeari uko egin dioten gobernuen lankidetzari esker. Rajoyk Bruselasekin adosten duen bezalaxe, Gasteiz eta Iruñako gobernuak gauza bera egiten dute Rajoyrekin: bat datoz murrizketak soldatetan eta gastu sozialean egin behar direla. Eta beren burua presiopean ikusten dutenez, propagandari ekiten diote, hedabideen kontrolera alegia, alternatiboak diren informazioak ezkutatzeko eta mugimendu sindikala elkarrizketa sozialen mahaietara deitzeko, bestela iraina eta bazterketa izango dutelarik. Mahai hauek gobernu eta patronalei babesa emateko besterik ez dira. Gainera, autogobernuaren edukiak desagertu egiten dira.

ELA ez da partaide izango antzezlan hutsal horretan. Gizarte politiken defentsa ez dago mahai horietan, baizik eta gobernuei zilegitasuna kentzean mobilizazio sozialaren bidez. Gainera, ELAk dio soldataren defentsa ezinbestekoa dela desberdintasun sozialak ekiditeko eta enplegua defendatzeko.

Bai, soldatak lansari hutsak baino askoz gehiago dira: enplegua ere badira –jarduera ekonomikoa sustatzen duten heinean–, pentsioak ere badira –kotizazioekin finantzatzen baitira– eta soldatak jaisten badira, kotizazioak eta pentsioak jaitsiko dira; hezkuntza eta osasuna ere badira; gizarte-politikak dira… Soldatak jaisteko erabakia jarrera ideologikoan oinarritzen da enpresetako etekinak handitzeko.

**Antolakuntza eta borroka**. Guzti horregatik, aurtengo Maiatzaren Lehenean ELAk itxaropen eta konpromisuzko mezua helarazi nahi dio langile klaseari: antolakuntza eta borroka. Ez da berdina zer egiten dugun eta denok ere ez gara berdinak. Beraiek iraganera bidaltzen gaituzte eta sindikalgintzak, gure ustez, bere sustraietan topatzen du alternatiba: ez dago ezer erradikalagorik langile klasea antolatu eta borrokatzera deitzea baino. Beraiek gizartea eta kolektibo dena suntsitzen dute eta guk horixe bera aldarrikatzen dugu. Ezinbestekoa zaigu langile klasea indartzea lan zentroetatik hasita, gure agintea sendotzen joateko.

Antolakunde sindikal indartsuekin bakarrik, kolektibo bezala bakarrik, ahal izango dugu. Horregatik, aurtengo Maiatzaren Lehenean ere ELAk kalea aldarrikatuko du eremu demokratiko gisa alternatibak plazaratzeko eta borrokaren balioa aintzat hartzeko. Horrek bakarrik mugituko ditu politikak beste norabidera. *Kalera!* oihua etsipenaren aurkako deia izango da, jaikitzeko eta borrokatzeko. Omenduko ditugu, orobat, etsi gabe lan egiten duten militante sindikalak, gehienetan isilpean,duintasun eta ahalegin handiz borroka sindikala eta sozialak garatzeko. Beraiek gabe, militantziarik gabe, sindikalgintza galdurik legoke.

Hau dena dela-eta, **MAIATZAK 1, DENOK BILBORA! 11:30etan JESUSEN BIHOTZEAN DUGU ZITA!**

FRANQUEO CONCERTADO
NO 08/129